



Claude Labat
mitologi ikerlea

«Inauteria
mundua
alderantziz
jartzeko
agerraldia da,
eta hori galdu
dugu»

**Roberto
Lavagna**

Argentinako
ekonomi
ministroa
Corralito garaian

Andoni Landa
euskara irakaslea
Arabako Errioxan

«Udal askok
uste du ikastola
eta euskaltegia
irekita nahikoa
dela»

Patxi Buldain

Hautzarotik
zahartzarora,
artista eta
errebelde

Ekoitzitako janariaren erdia botatzen dugu



Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatza!

Doako proiektua da


☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

Dagoeneko proiektuarekin bat egin duten elkarteak:

- Añorga Kultur eta Kirol Elkartea
- Arrasateko AED elkartea
- Atarrabiako Karrikaluze Euskaldunon Elkartea
- Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea
- Bilboko Kabia Kultur Elkargunea
- Bilboko Kafe Antzokia
- Derioko Kultur Bizirik Elkartea

- Donostiako Egia Bizirik Elkartea
- Gabiriako Kultur Etxea
- Getaiko Gaztetxea
- Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegia
- Hernaniko Zumitza Taberna
- Lasarteko Jaldi Kafe Antzokia
- Laudioko Gaztetxea
- Lazkaoko Maizpide Barnetegia
- Leitzako Atekabeltz Gaztetxea
- Lekeitioko Kultur Etxea
- Lemoako Elizondo Kultur Gunea
- Lezoko Kultur Aretoa

- Ordiziako Gaztetxea
- Santurtziko Mamariga Kultur Etxea
- Sestaoko Udal Liburutegia
- Ugaoko Dorrea Elkartea
- Urduñako Alhondiga
- Urkabustaitzeko Izarra Kultur Etxea
- Urretxu-Zumarragako Gaztelekua
- Usurbilgo Sutegi Kultur Etxea
- Zarauzko Sanz Enea Kultur Etxea
- Zestoako Kultur Etxea
- Zornotzako Barnetegia
- Zumaiako Gaztetxea



Otsailean ikusgai

Lucio

**SARRERA
doan**

* Bertaratuentzat
eskaintza bereziak
ARGIaren eskutik

Prentsako izenburuetan "lapur ona" edo "Azeri euskalduna" deitu zioten. Garai hartako 3.000 milioiko iruzurra egin zion First National Bank (orain Citibank) etxeari, dirua berak sinesten zuen kausetan inbertitzeko. Lucio Urtubia, Cascantekoa (Nafarroa).

Datozen emanaldiak

- Sahara marathon
- Haizea eta sustraiak
- Sagarren denbora





Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2012ko otsailaren 19a, 2.311. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Helena Taberna:** «Zinema beti da memoria». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Alferrik galdutako janaria.** Saihestu ditzakegun zifra beldurgarriak. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 5

Pertsonaia

- **Claude Labat:** «Oraina da interesgarria, ez iragana, ez geroa ere». MIKEL ASURMENDI / 10

Gaiak

- **Ganekogorta mendia.** Ez dute aerosorgailurik nahi Bilboaldeko birikan. ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 15

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Boligrafo bat adibide. UXUE APAOLAZA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Indarkeria.** JOSEBE ITURRIOZ / 20
- **Txandan** Txillardegiren omenez. AMATIÑO / 20
- **Ahal den legez.** EIDER ALKORTA / 21
- **Hiruko txikian** Astea. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Zirtak** Ostiral arratsalde batez. JOSE INAZIO BASTERRETXE / 22
- **Bertso berriak** Gerra Zibila. UNAI AGIRRE / 24

Erdiko kaiera

- **Artea.** Patxi Buldain, egiaren hautua. ITZIAR MADINA / 25
- **Eztabaida.** Bost ideia Donostia 2016ri buruz. GORKA BEREZIARTUA / 28
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Roberto Lavagna:** «Murrizketa politikoez porrot egin dute». GORKA BERSATEGI / 39
- **Andoni Landa, euskara irakaslea Arabako Errioxan:** «Zer pizgarri dute hemengo umeek euskaraz egiteko?». MIEL A. ELUSTONDO / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 48
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 49

Azkena

- **Tarteko helmugak,** inoiz baino gehiago. IÑAKI ANTIGUEDAD / 50



“Zinema beti da memoria”

Helena Taberna

Dena ez da berri ona.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Josu Santesteban

Hara, berari buruzko informazio oro ezkutatzen duena!

Zer ardura du dibortziatua naizen ala ez, zazpi haur ditudan ala haurrik ezin dudan ukan, nire aukera sexualak zein diren, ala Errege Magoei buruz zer iritzi dudan? Niri buruzko informazioak ikuslea eta pelikula baldintzatzen dituzten etiketak dira.

Baina XXI. mendeko gizakia baino etiketazeleagorik...

Zer eta nola kontatzen dudan da garrantzitsua. Hortik landa, gorroto ditut pelikula kontatzen dizuten trailerrak, pentsatu eta ikusi behar duzuna azpimarratzen dizuten filmak... Konfiantza osoa daukat ikuslearen inteligentzian.

Mundu honetakoa zara?

Noiz ulertuko dugu ebidentea azpimarratzea mingarria bezain iraingarria dela? Pentsa, batzuetan hala helarazi izan didaten mezua gorrotatzera iritsi naiz, nire ideiekin bat zeto-rraren arren.

Segi, segi kritikari zenbaiti letaginak zorrozten!

Ideologia jakin bateko kritikaren perbertsioak politikotzat jotzen den film oro panfletotzat katalogatzen du. Nik hasi aurretik dakit panfletotzak zine txarra dakarrela. Horregatik bakoitzak erabaki dezala zer pentsatu, non kokatu, istorioa nola borobildu.

Aukeratzen dituzun gaiak ikusita, zuri hatza zaurian sartzea gustatzen zaizu.

Hollywoodeko nori otuko zaio Yoyes edo Nagore Laffageri buruzko pelikula bat egi-

tea? Ezinbestekoa da herri batek bere historia kontatzea. Historia eta istoriorik gabe ez gara ezer, eta zinema beti da memoria.

Baina memoria ez al zuten irabazleek elikatzen?

Bakoitzak elikatu behar du berea. Ez pentsa hautatzen ditudan gaiak hautatzeko DNA berezia dudarik. Munduan bizi naiz, munduan gertatzen direnek hunkitzen naute, eta zine-maitale gartsua izaki, ikusi nahi nituzkeen pelikulak egiten saiatzen naiz.

Independentzia, astero ez bada ere, pelikula oro ikusi dadila.

Zinema egitea oso gaitza da, ez esfortzu artistikoagatik soilik, finantziazioarengatik baizik. Gainera, niri saltsa gustatzen zait, periferiakoa naiz, emakumea... Zailtasun erantsi asko dauzkat, baina independentea ez banintz ez nuke filmik egingo.

Eskerrak zine-aretoak husten ari diren...

Zer kontatua dagoen artean, istorio zinematografikoek izango dute lekua han edo hemen. Niri filmaren osteko kafe-tertulia galtzeak ematen dit pena. Krispetak izozteko egiten ditut pelikulak, jendeari zeresana pizteko, eta errito soziala desagertzen bada...

Gizonezko zuzendariei euren protagonistak zer-gatik diren gizonezkoak galdetuko diegu.

Ordainduko nuke batzuen aurpegiak ikusteagatik! Apurka-apurka aurrera goaz, baina Goya sarien palmaresa ikusi besterik ez dago: ia erabateko maskulinitatea. ■



Alferrik galdutako janaria

Saihestu ditzakegun zifra beldurgarriak

Europar eta AEBetan, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu, edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara. Zenbaki eskandalagarri hauek saihestu daitezke, ordea: legedia zorrozuz, jakien iraupena luzatzeko neurriak hartuz, hornitzaile eta saltokien jardunean gardentasuna eskatuz... eta kontsumitzaileon ohitura txarrak alboratuz.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

EZ DAGO zuloztorik duen patatarik supermerkatuetan, ez dago fruitu eta barazki “itsusirik”, sagar handi eta koloretsuak baizik, tamaina bera duten tomate biribilak, letxuga berde-berdeak. Itxura “perfektua” ez duten fruitu eta barazki uztak tonaka uzten dira galtzen, saltokiek arbuiaututa. Legediak berak ez du asko laguntzen: Europar Batasuneko arauen arabera, esaterako, 50 milimetroko diametroa edo 70 gramoko pisua ez duen sagarrik ezin da saldu, ezta 62 gramo baino gutxiago duen kiwirik. Okerregiak, zuzenegiak, txikiegiak, handiegiak direlako, bildutako bananen %20-40 artean botatzen da urtero Latinoamerikan eta Afrikan (20 milioi tona inguru). Europar Batasunak ezarritako tamaina baino txikiagoa duelako edo interesatzen ez zaien espeziea delako, europar arrantzaleek harrapaturiko arrainen %40-60 alboratzen dute. Moldeko ogi bakoitzetik lau ogi-xerra (hasierako biak eta bukaerako biak) zakarretara botatzera behartzen ditu langileak Marks & Spencer konpainiak, ertzak saihesteko. Herrialde anglosaxoietan, aldian behin etxeko hozkailua hustu eta dagoen guztia botatzeko ohitura zabaldua dago, “garbitzeko”. Askok dira horrelako adibideak eta ondorioz asko da usteltzen uzten den janaria, osasuntsua eta gozoa izan arren.

Horren erakusgarri, eta muinera iritsi aurretik, hona datu gutxi batzuk, arazoaren dimentsioaz jabetzeko. Sarreran aipatu bezala, kontsumitzen dugunaren ia erdia zaborretara doa Europar, eta ahoratzen ditugun animaliak elikatzeke erabiltzen den jana kontuan



DESPILFARRO. EL ESCÁNDALO GLOBAL DE LA COMIDA

hartuz gero, bi heren doa kontainerretara. Tristram Stuartek *Waste. Uncovering the Global Food Scandal* (Alferrik galtzea. Janariaren eskandalu globala azaleratzen) liburuan argitzen duenez, sektoreko fase guztietan ematen da galera (elikagaien ekoizpenean, garraioan, saltokietan eta etxeetan). Hainbat ikerketaren arabera, produzitutakoaren herena botatzen du Europako manufaktura eta prozesamendu industriak, eta arrantzatzen den guztitik erdia baino zer-txobait gehiago baino ez dugu jaten –aingira, paneka, perloi zirrindatua, liba, ur-txakurra... tonaka botatzen dira “nahi gabe” arrantzatu ostean, ez direlako salgarriak—. Europako saltoki handi batek 500-600 tona jaki botatzen ditu urtero eta eskoletan zerbitzatzen den jakien %24-35ak zakarrontzian amaitzen du. Etxean ere janari asko baztertzen omen dugu kontsumitzaileok, nahiz eta kontziente ez izan: herritar europarrak uste du %4 inguru botatzen duela, baina egiaz ia-ia %20 da.

Gaiari duela gutxi heldu dio Europar Bata-sunak, iaz eskatutako txostenaren datuek behartuta: EBn urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasun-tsu mespretxatzen ditu (kilo erdia egunero). Dagoeneko, Elikagaiak Alferrik Galtzearen Kontrako Urtea izendatu du EBk 2013.

Lehen Munduko soberakinekin gose diren 1.000 milioi pertsonak elikatuko genituzkeen arren, azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, baizik soberakinik ez sortzea. Elikagaien gainproduktzioak eta ustiapen erraldoiek izugarrizko kalteak eragiten dizkiote ingurumenari –Lurraren baliabide mugatuak xahutzeaz gain— eta gehiegizko demandak lehengaien prezioa garestitzen du, Hirugarren Mundukoen erosketa ahalmena areago murriztuz. Han ere alferrik galtzen da janaria, ekoitzitakoaren %30-40, baina ez eskari handiarengatik, baizik eta azpiegitura egokirik ez dagoenez elikagaiak ez direlako behar bezala mantentzen.

Supermerkatu eta jangeletako atzealdeak

Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik. Hasteko, hornitzaileekin duten harremanak du eragina: eskatutako produktuen kopurua ondo kalkulatu behar da, baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan. Muturrean “gainproduktzio hondakin”

“Denetarik izan behar dugu apalategietan, jendeak aukera nahi izaten du, ikusteko, probatzeko... eta horrek behar baino produktu gehiago izatea dakar”

EROSKIKO LANGILEA

deiturikoak daude, saldutakoa baino gehiago denean botatakoa; adibidez saltokiak eskaera handia aurreikusi eta helarazi diolako hornitzaileari, baina gero, eskaera zehatza berrestekoan, kopuru txikiagoa adostu duelako. Gainera, barietatea eta berriena eduki beharrak ere sortzen ditu soberakinak: “Denetarik izan behar dugu apalategietan, jendeak aukera nahi izaten du, ikusteko, probatzeko... eta horrek

behar baino produktu gehiago izatea dakar”, azaldu digu bere izena eman nahi ez duen Eroski supermerkatu bateko langileak. “Era berean, iraungitzeaz dauden produktu ugari botatzen ditugu, jogurtak pila bat, iraungi baino bost egun lehenago; arraina, fruituak, barazkiak... ere zakarretara doaz, itxura aldetik zatartzen hasten direnean”. Sal-

toki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea, hornitzaileengandik gutxi ordainduta lortzen dituztelako produktuak, eta behin kopuru jakin bat salduta, errentagarritasuna ziurtatuta dute. Dena den, neurriak hartzen hasiak direla ere azpimarratu du Eroskiko langileak: “Bolada batean astakeria izan da zenbat bota den supermerkatuan, niri neuri lotsa ematen zidan zakarretara botatzeak, baina pixkanaka aldatzen ari dira gauzak, formula berriak atera dituzte, iraungitzeaz dauden produktuak merkatuz adibidez, bi jogurt baten prezioan, haragia %30 merkeago iraungi baino egun bat lehenago... eta badago horretaz baliatzen den jendea, krisi garaiotan itxaroten egoten direnak produktua merkatu ahal erosteko”.

Auzo Lagun catering enpresak berriz, soberakin ahalik eta gutxien sortzeko, erosi beharreko lehengaien kopurua ondo kalkulatzeko eta erabili gabeko produktuak hurrengo egunetako menuetan aprobetxatzeko ondo kontserbatzen dituztela esan digu. Egutegia 117.000 menu

(9.000 kilo) banatzen ditu Auzo Lagunek Hego Euskal Herrian, 775 zentrotan, batez ere ikastetxe, ospitale, zahar-etxe eta fabriketan. Azken horietan sortzen da hondakin gehien, menuetan aukera bat baino gehiago eskaini ohi delako; ospitale eta zaharren egoitzetan aurreikuspen zehatza egiten da egunean bertan eta eskoletan menu bakarra dago. Ikastetxeetako menuaren irizpideak zehaztuta datoz Eusko Jaurlaritzatik, nutrizionisten aholkuei jarraiki: “Adinaren arabera kopuru zehatz bat izan behar du plater bakoitzak eta hori banatzera behartuta gaude”, dio Amaia Agirre catering enpresako Kalitate saileko kideak.



DESPILFARRO

Ezkerrean goian, enpanadilla fabrika batean alboratutako masa; behean, Tenerifeko plantazio batean baztertutako tomateak; eta eskuinean, Costa Rican botatako milaka banana "akasdun". Azkeneko orrialdean irakur daitekeenez, jatetxeetako ohiturak aldatuz, hornitzaile eta saltokien arteko tratua gainbegiratzuz, gure eguneroko jardunean arreta jarritz... egoera aldatu dezakegu.

Agirrek argitu duenez, lehengaiak kontserbatu eta probestu ditzakete, ez ordea prestatu ostean soberan geratu dena: "Legeak dio kozi-natzen dugun janariak uneoro 65°C-ra egon behar duela gutxienez, baina kasik ezinezkoa da jana denbora guztian 65°tan mantentzea, uneren batean zertxobait jaisten da tenperatura eta janari hori bota egin behar dela dio legeak —baita sukaldetik ateratzen bada ere, nahiz eta 65°ra mantendu—. Horrez gain, lortuko bagenu ere 65°tik ez jais-tea, bi ordutan 8°C-ra iristen dela ziurtatu behar da, hozketa proze-sua azkar eman dadin, ezin da hozkailuan sartu eta kito, gainera hozkailuan 65°ko jakia sartuta ten-peratura orokorra igo eta gainera-ko produktuei eragiten die, beraz oso-oso zaila da baldintza horiek guztiak betetzea". Alegia, produk-tu bukatuetan soberakinak daude-nean, zakarretara doaz zuzenean, Osasun legeek baitiote ez direla jangarriak eta beraz ezin direla etxera eramán, banatu edo eskaini. "Noizbait gertatu zaigu, bezeroren batek soberakoa baliatu nahi izan duela: eskola batean zahar-etxera eramán nahi zituzten hon-darrak, haurtzaindegi batean ontzietan gorde eta gurasoen artean banatu... baina guk ez dugu gomendatzen, guk ziurtatzen dugulako janaria baldintza jakin batzuetan mantentzen eta maneiatzaren dugula, baina hortik kanpo... Soberakin gutxi sortzen dela aintzat hartuta, sortzen dena botatzea da gure aholkua".

"Etiketako 'kontsumitu... baino lehen' esaldiak ez du esan nahi hortik aurrera jakia kaltegarria denik, baizik eta fabrikatzaileen arabera sentsorialki ez dela agian bere onenean egongo"

IOSUNE CANTALEJO, ELIKAGAIEN TEKNOLOGIA

Iraungitze etiketa nahasgarriak

Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuen iraungitze datarekin dagoen nahasmena da. Jakien etiketa irakurtzean, ezberdindu egin behar ditugu batetik "Tapa-kian adierazitako data baino lehen kontsumi-tu" delakoa —alegia, gaztelaniaz edo frantsesez usu irakurri ohi dugun "*Consommer préférentem-ent* antes de", "*À consommer de préférence avant le*"—

eta bestetik "Iraungitze data". Sarri lehenengo oharra baino ez du eramaten etiketak eta data horrek ez du iraungitze data adierazten, baizik eta fabrika-tzaileak iritzi diola data horretatik aurrera produktuak ez ditue-la beharbada hasierako ezaugarri guztiak bere horretan mantenduko. Hala azaldu digu Iosune Cantalejo Nafarroako Unibertsitate Publikoko Elika-gaijen Teknologia saileko irakas-leak: "Kontsumitu... baino lehen' jartzen badu, ez du esan nahi hortik aurrera ezin dai-tekeenik kontsumitu eta osasunerako arriskua duenik, esan nahi du sentsorialki ez dela agian bere onenean egongo. Alegia, kalitateari begi-ra, hasieran zituen usaina, zaporea, irmotasu-na, freskotasuna... ez dituela zertan manten-du, baina jogurta iraungita ere, egun batzuetara jan dezaket lasai asko, besterik gabe egunak pasa ahala geroz eta garrantzago egongo da, bizirik dauden bakterioak jogurta-ren azukrea jaten ari direlako, eta hilabetera

Franco Santonastaso, El 70 tabernako sukaldaria «Dena berrerabili daiteke, plater originalak kozinatuz»

Gasteizko alde zaharrean dago El 70 taberna-jatetxea, Aiztogile karrikan. 2008an jaio zen, elikaduraren burujabetza eta kontsumo arduratsua oinarri. Soberakinik ez sortzeko sekretua argi du Franco Santonastaso El 70-ko sukaldariak: dena aprobetxatzea. “Landare bat hartzen badugu adibidez, hostotik sustrairaino aprobetxatzea, bai prestatu aurretik, baita ondoren ere; alegia, zerbait erabili gabe geratu bada, beste zerbait egiteko berrerabili. Porruarekin esaterako, zuri koloredun hamar zentimetroak baino ez erabiltzea alferrik galtzea da, erabili hostoak zopa edo menestra egiteko, beste jakiren bat biltzeko... Erremolatxarekin berdin: sustraia baino ez da erabiltzen, baina hostoak ere goxoak daude, egosi, salteatu, beste era batera aurkeztu... Batzuetan aurkezten ditugun platerak arraroak iruditzen zaizkie bezeroei, baina probatu eta ezustekoa hartzen dute, jendeari erakusten diozu dena berrerabili daitekeela, plater originalak kozinatu”. Sormena garrantzitsua da, gainera denboraldiko produktuekin baino ez dutelako lan egiten, ekoizle zuzenek eskaintzeko daukatenarekin, baina osagarri berarekin plater ezberdin ugari egin daitezkeela dio Santonastasok, menu bariatua eskaintzea badagoela.

Lehengaien eskaera egiterakoan ondo planifikatzea ere funtsezkoa da, eta jatetxe txikia izanik, erraza omen

da antolatzea. Norbaitek deitzen badu 50 lagunentzako bazkaria egin nahi duela esanez, handitu egiten da eskaria eta kito. “Inguruko jatetxeen zaborrontziak ikusita antzematen da janari asko botatzen dela. Kontua da jate-txe handiek hornitzaile handiekin egiten dutela lan, lehen-gaien prezioak merkeak dira eta ez dute arduraz begiratzeko erositako kantitatea, irabazi marjina handia delako: guk patata kiloa euro bat ordaintzen dugu, besteek 20 xentimo inguru, eta beraz niri patata bat galtzeak min egingo dit, baina jatetxeak bota egingo du erreparorik gabe, behin etekina aterata”, uste du sukaldari italiarrak.



ALEX LARRETXI

hartutako gosaritako zerealak ez dira hasieran bezain kurruskari egongo, txokolatea zahartzen joango da hilabeteekin, baina osasunari ez diote kalterik egingo. Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari begira guztiz egokiak diren elikagaiak”.


Ardura gehien mariskoarekin izan behar dela ohartarazi du Iosune Cantalejok, baita haragi eta arrain freskoarekin ere, garrantzitsua da janaria ondo kontserbatzea eta hotz-katea ez haustea. Aldiz, kontserbek asko irauten dute: tratamendu termikoa izan dute aurretik eta ontzia ongi badago –hermetikoki itxia, kolpe barik, herdoildu gabe–, urtetan jangarri mantendu daitezke kontserba asko, iraungitze dataren ondoren ez dira bat-batean kaltegarri bihurtzen. “Inportantea da produktuen etiketak irakurtzen jakitea eta etiketak informazio osatua eta egokia duela ziurtatzea. Hala, gomendioak jarraitzea baino ez dago: leku lehor eta hotzetan mantentzea eta halakoak. Frigorifikoa zenbatetan irekitzen dugun eta barnean zenbat janari dugun ere kontuan hartzea komeni da, tenperatura funtsezkoa baita, produktua ez hondatzeko”.

Ekintzaileak eta Elikagaien Bankuak

Soberakinik ez sortzea da funtsa, baina behin sortutakoan, zer egin janari horrekin? Eroskiko langileak onartu du beraien saltokian kon-

tainerrean amaitzen dutela jakiek, baina haragia eta arraina jasotzera hurbiltzen dela enpresa –debekatuta dute langileek ezer ateratzea–. Halako kontainerretatik arrantzatutakoaz elikatzen urteak eman ditu Tristram Stuartek; lehen aipaturiko liburuan kontatzen du esperientzia eta harrigarria da zein otordu aberatsak egin daitezkeen baztertu den janaria berreskuratuz. Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da: ez dira eskaleak, ekintzaileak baizik, edo besterik gabe janaria usteltzen uzteko prest ez daudenak. Sarri, behar dutenen artean banatzen dute lortutakoa; Baiona eta Bokaleko taldetxo batek, hain juxtu, hamabost bat laguni ematen die jaten, saltokien zabortegetatik hartutako hondar baliotsuekin. Batzuetan, ordea, ez da lan samurra: supermerkatu handietako kontainerrak gordeta egoten dira zenbaitetan, edo paketeak irekita-puskatuta eta janari dena nahasita.

Boluntarioen lanari esker, Euskal Herriko Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzeko dituzte Recondo, Puleva, Beti Ona fruituak, Ortiz kontserbak, San Marcial harategiak, Urdaki, Eroski, Carrefour, Alcampo eta abar luze baten eskutik. Bankuek beraiek jasotzen dute jana eta ondoren, gobernu kanpoko erakundeak eta antzeko elkarteak arduratzen dira Bankuetatik elikagaiak hartu



eta behar dutenen artean banatzeaz. “Merca-Bilbaora joaten gara goizero eta heldu zaizkielako dende erosiko ez dizkieten produktuak, kontsumitzeko primeran daudenak, eskuratzen ditugu; edo supermerkatuek produktu jakin batekin egin duten kanpaina berezitik soberan geratu dena; baita ere akatsen bat duela irizten diotelako, iraungitze datatik gertu dagoelako edo lurrera erori delako baztertzen dituzten jakiak...”, azaldu du Nicolas Palacios, Bizkaiko Elikagaien Bankuko presidenteak.

Guk egin dezakeguna

Jatetxean, platerak aurrez prestatu ordez, ahal den neurrian hobe da bezeroek eskatu ahala kozinatzea, erabili gabeko lehengaiak gordetzeko; lekua aurrez enkargatzea ere komeni da, kalkuluak fintzeko; eta soberakinak tupperrean eramateko lotsarik ez genduke izan behar. Supermerkatuek aukera eman diezaiekete jaki “itsusiei”, eta aurreikuspen onak egiteak –gehien/gutxien kontsumitzen diren produktuetan arreta jarriz– asko murriztu dezake elikagaien xahutzea. Araudia zorroztu daiteke: adibidez, saltoki eta hornitzaileen arteko harremanean klausulak ezarri, supermerkatuek ez diezaieten hornitzaileei itzuli saldu gabeko nahi adina produktu eta azken orduan ezin ditzaten eskaerak nahi beste aldatu, hartara ez bailirateke aurreikuspenetan eta eskaertan hain ezaxola arituko saltoki asko; Norvegian egiten den gisan, botatzen dutena publiko egitera behartu daitezke enpresak, jendearen aurrean irudi garbia eman nahian eraginkorra-

“MercaBilbaora joaten gara goizero eta heldu zaizkielako dende erosiko ez dizkieten produktuak, kontsumitzeko primerakoak, eskuratzen ditugu”

NICOLAS PALACIOS, ELIKAGAIEN BANKUA

go joka dezaten; hondakindegietara jana eramatea debekatu daiteke; jan hondakinei tasa bat ezarri; edota praktika onak saritu.

Legedia zorrozteko bide horretan, neurriak hartzeko asmoa agertu du Europar Batasunak, aipaturiko txostenaren harira: nekazaritza eta bestelakoen ustiaketa prozesua arautu nahi du –arrantza eredia ere jarri beharko litzateke mahai gainean–; etiketan iraungitzeari lotutako bi datak ondo zehaztea du helburu; eta aholkua luzatzen die saltokiei iraungitzeaz dauden produktuen prezioa beharrezko edo soberakinak izan aurretik

bezeroei eskaintza bereziak egin diezaieten. 2025erako elikadura hondakinak erdira jaistea da Nazio Batuen xedea.

Guk geuk, noski, ez da gutxi egin dezakeguna, ekintza errazak izanik. Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen digu Tristram Stuartek; kopuruak ondo neurtu eta soberakinak

aprobetxatzea, berrerabiltzea, izoztea eta birziklatzea ohitura bihurtu dezakegu –soberakinak aprobetxatzeko jaio ziren kaneloak, baratzuri-zopa, *pain perdu* postrea...–; eta egungo kontsumo eredia norberak alda dezake, bitartekaririk gabe zuzenean inguruko ekoizleei erosiz. Adibide bakan batzuk baino ez dira, finean garai bateko ardura berreskuratzea baita gakoa, beharbada gaur egun elikagaiek duten balio ekonomiko hutsalarengatik galdutako kontzientzia berreskuratzea. Osterantzean, planeta bera galduko dugu alferrik. ■



Claude Labat

«Oraina da interesgarria, ez iragana, ez geroa ere»

“Claude Iruretagoyenak iraganaz biziki interesatua naizela dio, eta egia da, iragana baina, horrela ulertua: autoa aitzina begira gidatzen dugu, baina ezin dugu aitzina egin atzerako ispilura so egin gabe. Eta, alta, funtsezko egiten ari garen bidea da, ez dugu atzera egin behar. Iragana erretrobisorea besterik ez da”. Ele horiek girotu dute Claude Labatekin izandako solasaldia.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Aita miarritzarra eta ama baionarra zenituen...

...alabaina, lana eta beharra zirela-eta, Orthezera joan behar izan zuen aitak. Ni Orthezen jaio nintzen, baina bi urtetan Baionara itzuli nintzen. Ama anartean hil zen, nik ez nuen ezagutu. Baiona Tipian hazi nintzen, aitarekin hezi ginen arreba eta biok, ene amaren amaren —amatxiren— laguntzarekin. Ene aita sukaldari xumea zen, oporraldian ere lanean ziharduen. Ene amatxi gaskoia zen, etxean gaskoia eta euskara entzuten ziren, bi kulturak bizi izan ditugu harri durarik gabe.

Zer da Baiona zuretzat?

Baionak aparteko historia dauka, etorkinei ateak zabaldu dizkien hiri da. Itsasportua izan du bisitarien atari, munduko jendeak bildu dituen portua da Baiona. Iparretik nahiz hegotik datozen bide nagusietatik Europa eta munduko kulturak jaso ditu halaber. Baiona munduko kulturei zubiak eraikitako hiria da.

Pirinioetan gaindiko kulturen bilgunea, betiere.

Baiki, Euskal Herria eta Gaskoniaren magalera, Athurri eta Errobi ibaietatik euskal eta gaskoi kulturak bildu dituen. Gaur egun, Baiona muga hiria da, baina ezaugarri hau ez da bertan mugatzen, gaskoia ere Donostiaraino eta harago ere iritsi baita historian.

Itzul gaitezen zure haurtzarora.

Ene haurtzaroa xumea izan zen, alta, biziki zoriontsuak ginen, karrikan bizi ginen. Portu-

ra joan ohi ginen sarri. Ni itsasoari begira eta handik arribatzen ziren jendeek eta kulturek inguratuta koskortu nintzen.

Haurtzaroan ainguratutako pertsona zara, menturaz.

Ez baitezpada. Haurtzaro zoriontsua ukan nuen, baina ez naiz inola ere hartan ainguraturik. Irakasle bilakatzean, “pertsonak zoriontsuak dira haiek bizi duten unean” adierazpidea nire egin nuen. Hots, ez ditut ikasleak sekula etorkizuneko helduak bezala tratatu, unean uneko pertsona bezala baizik, garaian garaikoa bizi behar dela erakutsi diet, edo saiatu naiz behinik behin. Hori hagitz inportantea da. Nik ez dut esaten “ene haurtzaroa ene urrezko garaia izan zen”. Hori ez da batere egia. Enetzat orainean bizi dudana da interesgarria, aurrekoa eta gero-koa baino interesgarriagoa betiere.

Nortasun agiria

Ortheze, 1947. Baiones petoa da, alta. Lauburu kultur eta ondare elkarteko arduraduna eta ikerlea. Irakasle izana da duela lau urtera arte. Euskal mitologia aztertu du bereziki. *Libre parcours de la mythologie basque avant qu'elle ne soit enfermée dans un parc d'attraction* (Euskal mitologiaren ibilbide librea, jolas-parke batean sartu izan aitzin) bere azken liburuaren titulua, luzea bezain esanguratsua da.





“Euskal mitologia begi berriz ikusia” erakusketaren egilea da Claude Labat. Baionako Mediatekan egon ginen berarekin.

Zure gaztaroaz, berriz, zer oroitzen duzu?

Ene gaztaroa partikularra izan zen. Familiaren inguruabarrak ene ikasle izaeran eragin zuen nolabait. Ez nintzen batere ona ikasketetan. Halere, maite nuen eskolara joatea, ziur aski lagunekin egoteko, baina enetzat eskola ez zen leku erakargarria. Hiru ikasturte errepikatu nituen. Zorionez, Lizeoko bigarren urtean, geografia irakasle batekin topo egin nuen. Novet izena zuen. Irakasle hark geografiaz interesarazi ninduen, zinez, zerabilen metodoak liluratu ninduen. Munduko kartak jartzen zituen mahai gainean eta “baduzue bost minutu errateko zergatik instalatu duten lantegi hau edo hori ingurune horretan” erraten zigun. Gauza zehatzen gainean burubelarri murgilarazten gintuen, inguruan eta errealtatean oinarrituak betiere.

Eskolako sistemaren arrastoa nozitu duzula erran dezakegu?

Eskolak markatu ninduen, nolabait. Irakaskuntza sistemak Frantzia eta Ipar Euskal Herria bereziki arras markatua ditu. Ene garaian, irakaskuntzaren aurkako erreakzio gisako bat izan zen, eta egun ere, irakaskuntzak krak egiten du hein handi batean. Izan ere, sistemak soberako eragina du ikasleengan.

Erljioak ere eragin zuen zure bizitzan, jakin dugunez.

Eskola erlijiosoan hezi nintzen... Fraide izateko bidean egon nintzen une batez, baina utzi egin nuen. Gure etxean erlijioa ohikoa zen, aita sinestuna zen biziki. Alabaina, emeki-

Baiona

“Enetzat, Baiona bere etxeak dira, etxe estuak eta luzeak, bospasei solairukoak: beheko solairuan Etxeberri familia bizi da.

Lehenean, Cazenave (gaskoia). Bigarrenean, Maisonneuve (frantsesa).

Gaiean: espainolak (1936ko gerratik ihes egindakoak), portugaldarrak, magrebtarrak eta afrikarrak gero.

Baiona hori da, eta nik hala izatea nahi dut”.

emeki deslotu nintzen. Novet irakasleari esker ikasketa zientifikoak eta literarioak egin nituen, poliki-poliki bizitza beste gisaz begiratzen ikasi nuen. Unibertsoaren funtsa bestela ikusten eta ulertzen ikasi genuen belau-naldikoa naiz, 67-68 urteetako. Harrez gero, erlijioaren eta honen inguruko galderen aurrean lasai sentitzera iritsi nintzen.

Horrek eraman al zintuen mitologia aztertzerara? Nola bizi duzu erlijioa?

Erljioa ez dugu behar bezala ezagutzen. Nik erlijioaren eta mitologiaren arteko lotura bizi dut, Euskal Herrian oraindik ere bien lotura agerikoa da. Euskaldunek biak nahasten dituzte. Adibidez, sarritan erlijioa mitologiaren kontra dagoela entzuten dugu. Anuntxi Arana antropologoarekin lan egin dut gai honen inguruan, eta, erlijioak ez duela mitologiaren aurka egin oharu gara. Zoritzarrez, norbaitek kontrakoa erran duenez, baiezipen hori pentsamendu orokor bilakatzeko arriskua dago. Egia da, erlijioak “edan” duela mitologiatik, baina baita mitologiak erlijiotik ere, hau da, elkarrekiko harremana izan da. Ongi litzateke euskal erlijioaren hainbat alderdi berrikustea. Izan ere, erlijiosoek idatzi dute erlijioaren historia eta horrek baldintzatu du bere irakurketa.

Claude Iruretagoyena zure lagunaren aburuz “laminak ikusi dituen jauna” zara.

[Irriak]. Mitologiarekiko ene harremana 1979. urtetik dator. Irakasle lanetarako gaiak xerkatzen nituen. Irakaskuntzan arazoak

zituzten ikasleekin ene lana errealitatean funtsatua ematea bilatzen nuen, ene ikasgaiak eguneroko beharretan oinarritzea. Arazo handiak zituzten nerabeak ziren, haiek moti batzeko herriko errealitatetik abiatu nahi nuen, baina ez nuen dokumentaziorik, ez gure historiari ez geografiari nondik heldu ere. Lauburu Elkartea aurkitu eta historia ezagutzeko egiten zuen ahaleginaz ohartu nintzen. Behinola, Jacques Blot arkeologoak Euskal Herriari buruzko hitzaldia eman zuen, eta eskolentzako historia liburu bat egitea proposatu nion. Begietara so egin zidan eta, “liburu bat nahi duzu? Bada, zuhaurek egin ezazu”. Horra! [irriak]. Eginbide horretan Jose Migel Barandiaranengana zuzendu nituen urratsak, gauza ezohikoak deskubritzen joan nintzen: Apanizeko Damaren legenda. Oin palmatuak dituzten izakiak, hots, laminak. Mundu horretan murgildu nintzen, gero eta gehiago jakin nahian, gero eta liluratuagoa... Gaur egun arte.

Zer du euskal mitologiak besteez ez dutenik?

Beste mitologienez doi-doi dakit, euskal mitologiak interesatu naiz zehazkiago. Barandiareren bidea urratu dut, eta maleruski, uste dut ez dugula gure mitologia aski ikertu, eta oso garrantzitsua da. Hilabete honetan kale-ratuko dudan liburuan Egiptoko mitologiak idatzi dut, euskal eta egiptoar mitologiak alderatu ditut. Gurean, egiptoarren eza bezala, eguzkia izarren ibilbidetik ostentzen da. Alegia, euskal mitologian lurra eguzkia etzanarazten du. Euskaldunok lurrari garrantzi berezia eman diogula ohartu gara. Juan Ignazio Hartsuaga antropologoaren tesia apartekoa da zentzu horretan, euskaldunok kosmosa ikusteko moldean zerurik ez da ageri, lurra besterik ez dago. Horrek euskaldunak lurrari biziki lotuta daudela agertzen du, lurrari lotuta izate sedentarioak direla, leku bati atxikiak. Horrek azaltzen du euskal etxearen garrantzia.

EKE

“EKE (Euskal Kultur Erakundea)
Frantziako
politikarien aitzakia
da, kultura
babesten dutela
errateko. Ongi da.
Haatik, kultura
beste norabidean
eramaten saiatu
behar dugu, ahalaz,
botereek nahi duten
bideez harago.
Kultur teknikariak
behar direla? Bai.
Baina lurrari lotuak,
gaiak bertatik
bertara bizi
dituztenak”.

Historiaren interpretazioak beraz, berealdiko munta dauka.

Historia lanabes politiko bihurtu da irakas-kuntzan, boterearen faborerako eratua. Ber-din telebista ere. Zentzu horretan, nihaurek irakaskuntza, ikasleei begira betiere, abentura jarraitzeko ekimen gisa ulertzen dut, edota horrela erakusten saiatu naiz. Ikasleei erran diet: “Historian bizi izan zena biziberritzeko aukera baliatu behar duzue”. Egun, adibidez, hor dago suminduen edo indignatuen arazoa. Gertakari horiek oinarrian hartu eta historia-ko eskusioari buruzko iragana erakutsi behar da, antigoalekotik datorren eskusio egoera hori. Historian ikaspen asko dugu egoera horri buruz irakasteko, jendarteko arazoak konpontzeko erak aztertzeko, edo elkar ulertzen hasteko bederen. Bestela erranik: orainaz jardun behar dugu gazteak laguntzeko, geroan jarraitzeko, gizateriak aitzina egin dezan. Historiak, batez ere, nazio historiaren laborria dauka berekin. Nik Suzanne Citro irakaslearen liburuak gomendatzen ditut. Hizkuntzalari honek historia modu diakroni-koan erakusten du, zibilizazio guztiak aldi berean azalduz. Unibertsitateak ikuspuntu hori errefusatzan du, noski. Bera ez baita boteretsuek nahi bezala ari, bera munduko nazioez ari da. Kulturak beste kulturekin lotuta daude, baina hori ez da argi erakusten. Frantziako historian frantziarrak dira baka-rrak eta onenak.

Euskal nazioaren ideiaz zer iritzi duzu?

Nazioaren ideia ez zait bereziki interesatzen, beraz, euskal nazioarena ere ez. Euskal Herria Europako eskualdea izatea begi onez ikusten dut. Asmo zabalagoen aldekoa naiz, ez naiz nazio itxien aldekoa, ez ditut banderak maite. Konparazione, Gernikako Arbola ez da bandera bat, sustraiak ditu. Arbolan txoria imajinatzen dut, kantuz ari. Arbola ezin dut bandera legez irudikatu, enetzat bandera gauza murrizta da-eta.

**Arabako kuadrilla arteko
BERTSO TXAPELKETA
2012**

Antolatzaileak

Babelte Nagusik

Arabako Bertsotzaileak
Euzko Bertsotzaileak
Euzko Bertsotzaileak

Obra Social
Fundación "La Caixa"

radio
vitoria

Basque Country

3. ASTEBURUA

Otsailak 24, 25:

Gasteizko Eguzkilore elkarte
Gasteizko Aizkora taberna
Oiongo Azkenak elkarte
Aramaioko Eskolako jantokian

FINALERDIAK

Martxoak 10, 11

Zigoitia, Araia

FINALA

Martxoak 24

Aramaio

www.arabakotxapelketa.org



BESTEREN AHOTAN

Claude Iruretagoyenaren eletan

"LAMINAK IKUSI DITUEN JAUNA. Claude Labat aspaldi ezagutzen dut. Berak ni, galtzamotzetan nenbilenetik ezagutzen nauela dio; Baionako Saint Bernard ikastetxean irakaslea zelarik. Thierry Truffaut-iesker aurkitu nuen Claude, eta harrezkero sarritan gurutzatzen gara. Lauburu Elkarteko ikerlea da,



arkitekturaren zale sutsua, euskal etxearekin maitemindua, baita euskal estela diskoidalaren defendatzaile gartsua ere. Ezinezkoa zait lau lerrotan bera eta bere gaien subjektuak azaltzea. Historia urratzen du grinatsu, berezko argitasuna emanez iraganari. Mintzatzen entzuten baduzu, azkar antze-manen diozu zure baitakoa pizteko duen gaitasuna. Nik, 1995ean, *Ixtorio Mixtorio*ren sorkuntzan sentitu nuen hori, euskal mitologiari ekin behar izan nio-nean. Bere hitzek elikatu naute engoitik, eta behin mundu horretara iritsita, aitzina segitzen laguntzen naute. Bere hitzak elur maluten irudikoak dira. Zenbat urte ditu Claudek? Oin-palmatuak ote dituen pentsu dut sarritan. Bere oin-palmatuek ene unibertsoa bete dute! Mari baitago hor, Claudek Mari bere egiten du eta harrokeriarik gabe azaltzen. Berak erakusten du eta nik... nik ikasten dut. Hona ene nahia: harekin izandako 'kontsulta' guztiak Gizarte Segurantzak ordainduak izatea proposatzen dut. Milesker Claude!"

Inauteri aroa da. Zer iritzi duzu Euskal Herriko inauteriez?

Laborantza munduan salbu, Iparraldean eta Frantzian orobat, populazioak erabat galdu du inauteriaren zentzua. Baionan jendea gai zehatz baten inguruan moxorrotzen da. Iazko gaia Mexiko zen, aurtien Asia. Beraz, txinatarrak eta hango dragoiak ikusiko ditugu desfilean, euskal kulturako herensugea bazter utzirik. Gaitza da gero, norbaitek erratea zuk zer jantzi behar duzun soinean. Inauteria mundua alderantziz jartzeko agerraldia da, eta hori galdu dugu. Duela zenbait urtetik Baionako herriak galdu du irudimena, ez daki zer egin. Halaber, Baionako agintariak herritarren beldur daude. Alta, bada, herritarrek inauteria berea dela jakin behar dute.

Baserri inguruko inauteria bizirik dago: Hartza-roa, Libertimendua, Anhauekoa... Zuk azken hau ontsa ezagutzen duzu. Nolakoa da?

Anhaizen saiatu dira errespetatzen inauteriaren tradizioa, baina orainera ekarriz. Anhauztarrek badakite inauteria ikertu dudala eta estimatzen naute. Anhaueko [Baxenabarre] inauteria erdi emakumeek eta erdi gizonak jokatu da, berria da Euskal Herrian. Emakumeak *Xilintxadunak* dira, gizonak berriz *Basaldunak*. Izen berriak dira. Biziki interesgarria da, mundua binperrez jartzen xerkatu baitute. Inork ez daki nor

Mestizajea

"Ez naiz mestizajearen aldekoa, kulturen konfrontazioaren aldekoa baizik. Kulturek elkar ukitu behar dute, baina ez nahastu. Kulturen nahasketan txikiak desagiten dira, handiek irensten dute txikia. Kulturen konfrontazioa eta elkarrekikoa landu behar ditugu, eboluzioaren zentzuan, noski. Beti joan daiteke harago elkarren ondoan, nork bere askatasuna atxikitzea funtsezkoa da ordea".

den emakume nor gizona. Argiaren eta ilunaren kontrastea ari dira, emakumeak zuriz eta gizonak ilunez jantziak. Basak dira, joareekin, tximaz eta zarpail dabilta munduaren inkoherentzia agertuz, inauteriaren senean, Anhaueko karrika luzean barna, etxez etxe.

Zuberoako Maskarada ez da izan aurtien.

Bilkura funtsezko bat egiteko tenorea heldu zaie zuberotarrei. Zuberoako gazteek egoerari heldu beharko diete gogotik. Menturaz, garai berrian gaude, maleruski tradizio hori desagertzeko zorian.

Krisian? Hitza erabil dezakegu zentzu horretan?

Bai, prefosta. Krisian euskararen erabilpen eskasa sartu behar da. Halaber, Maskarada landako agerraldia da, eta horrela izatea normala eta beharrezkoa da, baina hein batean. Beharbada, engoitik ez du ehunetik ehun landako Maskarada izan behar. Gazte horiek unibertsitatean ari badira —kanpoan ikasteak eta bizitzeak ez du errazten jendartearen sare-tzen— mundu hori ere naski agertu beharko litzateke Maskaradan. Nola egin, besterik da. Ez da ere dakien zuzendari baten eskutik egin behar, ezta ni neu izanagatik ere, adibidez. Maskaradak bere jitea atxiki behar du, alta, egungo jendarteari begira sortu eta berritu behar du bere izatea. ■



Ez dute aerosorgailurik nahi Bilboaldeko birikan

Bizkaia eta Araba artean, Nerbioi eta Kadagua ibaietako haranek mugatua, bilbotar eta bizkaitar askoren eguneroko paisaia da Ganekogorta mendia. Euskal Herriko zonalderik jendetsu eta industrializatuenean egon arren, Pagasarri-Ganekogorta mendiguneak oso fauna eta flora aberatsak ditu. Gailurrean hamabi haize-errotak ipintzeko asmoak, ordea, arriskuan jar dezake ekosistema, mendizaleek, ekologistek eta hainbat erakundek eta alderdik salatu dutenez.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN



EAEko mendi federazioek gidatuta eta ekologistek lagunduta, Ganekogorta Aurrera taldea sortu dute, bertan eraiki nahi den zentral eolikoaren kontra. Ganekogortako ekosistema kaltetuko litzatekeela salatu du mugimenduak.

EZ DAGO Bilboaldean Pagasarri eta Ganekogorta mendiak ezagutzen ez dituenik. Izan ere, horiek dira eskualdeko biztanleek zapaldu ohi dituzten aurreneko gailurrak. Gizakia-
ren esku-hartzea (harrobiak, autobideak edota errauskailua lekuko) oso nabaria bada ere, nahiko ondo gordeta dago Bilboko birika den Pagasarri-Ganekogorta mendigunea. Egoera, baina, aldatu egin daiteke aurrera egiten badu Eólicas de Euskadi enpresaren egitasmoak: gailurrean 10,2 kilowatio potentzia-

ko zentral eolika sortu nahi du. Proiektuak 80 metroko hamabi aerosorgailu, 55 metroko dorre meteorologiko bi eta 200 metroko kontrol eraikina aurreikusten ditu. Halaber, eta Basauriko Sagarrak talde ekologistak emandako datuen arabera, proiektuak 9 kilometro luze eta 4,5 metro zabal izango litzuzkeen pista eta 4 kilometro hari elektriko jartzea ekarriko luke. “Sarbide guztiek mendigune osoko —Pastorekortatik Galagarra mendiraino, Pagasarriko eta Ganekogortako gailurre-

tatik iraganez— 14.550 metro kaltetuko lituzkete”, adierazi dute Sagarrak taldekoek. Aurrekontua 12 milioi eurokoa da.

Egitasmoa onartzeko beharrezkoa den Inguru Gaineko Eraginaren Adierazpena iazko martxo-apirilean jarri zuen martxan Eólicas de Euskadik. Bizkaiko eta Arabako aldizkari ofizialetan iragarri zuten, eta berehala etorri zen erantzuna: EAEko mendi federazioek gidatuta eta ekologisten laguntzarekin (denak Ganekogorta Aurrera taldean elkartuta), zentral eolikoa geldiarazteko ekimenak hasi ziren. Aipatutakoek ez

Eraso ugariren biktima

Bizkaiko Bilbo, Arrigorriaga, Guenes, Ugao, Alonsotegi eta Arabako Okondo udalerrietan kokatua dago mendigunea, eta Pagasarri (678 metro) eta Ganekogorta (998 metro) ditu tontor esanguratsuenak. Antzinetik abeltzaintzarako erabilia, XVI. mendean ipinitako burdinolek eta XVII. mendeko ontzigintzak deforestatu zuten. Egun, eta bere kokapenaren ondorioz, asko dira pairatzen dituen erasoak; besteak beste, harrobiak (hiruk lanean diraute oraindik), Zabalgarbi errauskailua (handitu nahi dutena), kontrolik gabeko zaborte-giak, Supersur autobide berria, antenak, elektrizitate hariak eta dagozkien dorreak, eta Intsinis pinu eta Lawson altzifre plantazioak. Pagasarri izan zen, bide batez esateko, Bilboko euskararen azken gotorlekua.

ezik, kaltetutako udalek (Bizkaiko Bilbo, Guenes, Arrigorriaga, Arrankudiaga, Ugao eta Alonsotegi, eta Arabako Okondo) eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere eskatu diote Eusko Jaurlaritzari ez emateko onespena. Mendiguneko paisaien, floraren eta faunaren biziraupena dute helburu zentralaren kontra daudenek. Beren ustez, egitasmoa legez kanpokoa da. Horrela islatu dute bai Ekologistak Martxan taldeak proiektuaren aurka jarritako arrazoibideetan, bai EAJk eta Bilduk Batzar Nagusietan aurkeztutako proposamenean.

2009ko irailean, Itun Eolikoa izeneko testua aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean: testuan diote egun jardunean dagoen Lurralde Plan Estrategikoa zaharkitua dagoela, baita bertan jasotzen diren irizpide teknikoak ere, plan berria egitea proposatzen da eta hori egin arte, oraingo Lurralde Planean oinarritzen diren egitasmoen onespenez ez ematea. Gasteizko Legebiltzarrak eta Arabako eta Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dute eskaerarekin, baina Ganekogortako prozesuak aurrera eginez gero, ez luke aintzat hartuko onartutakoa.

Zonalde honetan, 81 hegazti, 48 ugaztun, 9 narrasti, 8 anfibio eta 5 arrain mota daude, baita antzinako flora (hariztiak, pagadiak) duten hainbat leku ere



Zentralaren eragin paisajistikoa erakusteko, muntaiak egin dituzte proiektuaren aurkariak. Irudian, muntaia horietako bat, mendia itsadarretik begiratuta (Deustu-Erandio)

Mota honetako egiturak ezartzeko garaian, ekosistemetan, paisaia eta biodibertsitatean eraginik ez duten kokapenak aukeratzea proposatzen dute taldeek, Bilboko portuan egin den moduan

Bestalde, 1996an Eusko Jaurlaritzak kalera-tutako EAEko Natur Eremu adierazgarrien katalogoan dugu Ganekogortako mendigunea. Horren arabera, mendiguneak “babesa merezi du; edozein erabilera ematerakoan, kontserbazioa lehenbiziko faktorea” dela kontuan hartu behar da. Horrez gain, Pagasarri-Ganekogorta EAEko korridore ekologikoen sarean dago sartuta; izan ere, Armañongo, Gorbeiako eta Urkiolako natur parkeak lotzen ditu.

Bideragarritasun ekonomikoa

Zentralaren balizko atarramentua ere kolo-kan jartzen dute aurkariak. Legeak 10 kilowatioko gutxieneko potentzia aurreikusten du onespina emateko; Ganekogortakoak 10,2 kw lituzke. Ekologistak Martxan taldeak, Bilduk eta EAJk eman dituzten datuen arabera, zentralak EAEko kontsumitzen den energia-ren %0,16 ekoiztuko luke, hau da, 26.176 megawatio urtean. 12,1 milioi euroko gastua ez dela bideragarria gaineratu dute aurkariak.

“Ditugun zentral eolikoetako aerosorgailuen orde, egungo aurrerapen teknologikoekin lortutako aerosorgailu indartsuagoak jartzea ere ez dute kontuan izan”, esan zuen, joan den azaroan, Guenesko alkate Martin Perez Garmendiak, udalerri kaltetuek egini-ko agerraldian. Mendizaleen eta ekologisten ustez, “indar elektrikoaren ekoizpenak mugak izan beharko lituzke; eskaintzaren orde, eskaera kudeatu beharko litzateke, eraginkortasuna erraztuz”. Mota honetako egiturak ezartzeko garaian, ekosistemetan, paisaia eta biodibertsitatean eraginik ez duten kokapenak aukeratzea proposatzen dute taldeek, Bilboko portuan egin den moduan.

Zentral eolikoa eraikitzekotan, atzeraezinak lirateke eraginak Ganekogorta mendigunean. Haize-errotek beraiek sortutako kalteez gain (hegaztiak eta gautxoriak hiltzea, adibidez), lanek itzelezko kalteak ekarriko lituzkete urtegi bi hornitzen dituzten erreketan, floran eta faunan. Zonalde honetan, 81 hegazti, 48 ugaztun, 9 narrasti, 8 anfibio eta 5 arrain mota daude, baita antzinako flora (hariztiak, pagadiak) duten hainbat leku ere. Horien guztien eremua murriztu-ko luke egitasmoak, beraien bizi-raupena arriskuan ipiniz. ■



ikusi ikasi
eta

txotxongiloak, ipuin kontalariak, magia, antzerkia...
Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 3-12 urte

2012ko OTSAILA

02/21	TXOTXONGILO TALDEA 18:00etan Begoñako udalategian
02/22	PERMIN 18:00etan Zamakolan, Juan Delmas ikastetxean
02/23	ZIRIKA ZIRKUS 18:00etan BilboRock aretoan
02/25	MONDA ETA LIRONDA 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
02/28	BEGIRA 18:00etan Begoñako udalategian
02/29	RUM RUM ROCK 18:00etan Zurbaran herri ikastetxean

2012ko MARTXOA

03/01	PATATA TROPIKALA 18:00etan BilboRock aretoan
03/03	HIPO ETA TOMAX 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
03/06	MONDA ETA LIRONDA 18:00etan Begoñako udalategian
03/07	ELSA PAMPARACUATRO 18:00etan Zabalan, Iruarteta ikastetxean
03/08	SUN MAGOA 18:00etan BilboRock aretoan
03/10	BAPATEANZIRKO 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian
03/13	POTXIN ETA PATXIN 18:00etan Begoñako udalategian
03/14	ZURRUMURRU TALDEA 18:00etan Errekaldeberrin, Gabriel Aresti ikastetxean
03/15	BEGIRA 18:00etan BilboRock aretoan
03/17	TXOTXONGILO TALDEA 11:00etan Deustuko Bidarte udalategian

Bilbao **topagunea** **bbk**

TTAKUN (H)ERRENKA

Boligrafo bat adibide

N

ik Fragaren gaiari helduko diot ba, Jose Luis, Beñat, hil eta tertuliatan hainbeste demokrata sortu dituen gizona; “ez da ahaztu behar Fraga frankismoko ministro izan zela!”, ere entzun baita dezente, esperotako omenaldiez gain, eta, tira, beranduegi da beharbada esaldia ere hilik ez jaiotzeko, hiltzeko geratzen diren “ez da ahaztu behar...”-ak hemendik aurrera ederto biziko badira batez ere; baina ez da hori esan nahi nuena, niri Fragak balio dit gure jaurlaritzatik boligrafo bat, bai, boligrafo bat, nola falta den seinalatzerara eramango nauen bidea irekitzen didalako, dagoeneko demokratizaziorako metamorfosi betean zela esan zuen esaldi bati esker: “*La calle es mía*”. Autoritarismoaren perletako bat dudarik gabe, eta ez da kalea jabetzan berea zela esan nahi izateagatik; baina balitz? Alegia, kalea jabetzan berea dela pentsatzea ez litzateke autoritarismo era bat? Adibidez, lorategirako banku bat behar balu kalera jaitsi eta hartzea?

Ustelkeria kasuetako errudunak legeaz kanpo dabilatzala badakitela adierazten duten eszenografiak ematen dituzte, hain inozoak ez garela pentsatuta agian, ezkutatu behar bat, horregatik harritzen gara zenbaiten zabarkerien aurrean, Urdangarin kasu; ez lapurtu duelako, hain gaizki antolatu delako baizik. Mariano Rajoyk Bruselan Espainia bere lorategia, kalea, balitz bezala hitz egin zuenean ere, “lan erreforma greba orokor bat kostatuko zait”, mikrofono atzean izan nahi zuen, beraz, pentsa daiteke handiustea dela, baina badaki zenbait ez dela ados egongo lan erreformaren kostua zehazki hori izango denean.

Ari gara boligrafoa hurbiltzen. Aste honetan Esteban Gonzalez Ponsi eginiko elkarrizketa entzun nuen, eta ez, ez zuen ezer arrarorik egin, nik ere hasieratik ulertu nuen zerabilten tonu tristea; ministerio gabe geratu da, Federi-

DANI BLANCO



Nixne Apaolaza



Padron



Sarasola

co Trillo bezala. Eman dituen prentsaurrekoen ondoren! Txandalaz, edozein ordutan, egunetan, zerbait gertatzen bazen Espainiako edozein puntutan bere partiduaren erantzunaren beharra zuena, edo izan gabe, agertzen zen Gonzalez Pons, burutapenen bat beti prest. Izan zuen apalta-

sun gaitasun guztia, politikak gauzak ez dizkizula espero duzunean ematen esatea izan zen. Tira, ez dago disimulu beharrik, hitz egin daiteke ministerioak banatzeko maukak balira bezala. Guk bozkatzeko ditugunen artean. Gure ministerioak. Eta ez naiz identitatez ari, jabetzaz ari naiz, nork ordaintzen duen alegia, eta zertarako.

Eta kontua groteskoa bihurtzen da lapurreta kamara aurrean gertatzen denean, kazetariz inguratutik; Rodolfo Ares eta Fernandez Díez ziren, irribarretsu (barne politika da azken aldian, azken aldi luzean, gobernuen poz bakarra), ez dakit zer sinatuz mahaian eserita; barne arazotarako ministroak boligrafoari begiratzen dio, gus-
tatzen zaio eta lasaitasun osoz, mikrofonoak bere hitzen lekuko zirela jakinik ere, eta bai, inporta du, horretara bainoa, esaten dio gure sailburuari boligrafoa opari eramango duela. Eta Rodolfok barre egiten du. Beharbada txantxa zen. Ez. Sinatu eta azpimarratu zuen, boligrafoa

airean erakutsiz, poltsikoratu egingo zuela, bestela seguru ahaztu egingo zitzaioela. Gure boligrafoa. Txikieria bat da, eta horregatik da larria, horregatik da autoritarioa, horregatik da iraingarriagoa kasik, guk ordaintzen duguna, gure bizitza komuna artikulatzeko medioak, beraienak direla guk sinestarazi bagenie bezala, ez alderantziz. Eta Aresen barre kikilaren lekuan, Anguita irudikatu nuen, “ezin dizut eman, ez da nirea”, bat erantzunez, “eta kontuz informatiboetan ikusten ari dira nola lapurtzen diezun”. ■



« Barne ministroak boligrafoari begiratzen dio, gus-
tatzen zaio eta lasaitasun osoz, mikrofonoak bere hitzen lekuko zirela jakinik ere, eta bai, inporta du, horretara bainoa, esaten dio gure sailburuari boligrafoa opari eramango duela »



Hego Euskal Herriari kalifikazioa
jeitsi dio S&P agentziak...

...Zuberoan berriz, beti



A M A R E N A L A B A K



LASTER DISKA BERRIA

Joseba Iturriz

MEDEAK TALDEKO KIDEA

Indarkeria

Tamalez, askotan hitz egiten dugu indarkeriari buruz. Gehien harritzen nauena, gaia lantzeko era da. Gure gizartean indarkeria edonon dago. *Teleberriak* ikustea besterik ez dago hori baieztatzeko. Askotan ere, indarkeria ikuskizunen parte da, telebistan, filmetan, edo kontatzen ditugun txisteetan agertzen da lasai asko. Izugarritzko garrantzia ematen diogu, eta aldi berean, arintasun osoz tratatzen dugu.

Zertara dator hausnarketa hau? Ba, egia esan, Eusko Jaurlaritzak indarkeria matxistari aurre egiteko atera berri duen lege aurreproiektuak sortu dizkit aburu hauek. Mugimendu feministarentzat oso garrantzitsua da ulertzea zeintzuk diren indarkeria matxista horren jatorriak eta helburuak. Urteak eta mendeak daramatzagu gaia jorratzen eta ikertzen. Oraindik asko daukagu ikasteko, baina, argi duguna da: indarkeria horren jatorrian matxismoa dagoela, hau da, boterea. Indarkeria horren helburua gizartea modu jakin batean mantentzea da. Gizon/emakume izate dialektikoan oinarritzen da, gizonengandik eratortzen da eta emakumea du jomuga. Norbaitek galdetu dio bere buruari, ea zenbat emakume erahil dituzten senarrak? Horrek ez du esan nahi emakumezkoek esentzialki hobeagoak direnik. Esan nahi duen gauza



DANI BLANCO

Oraindik asko daukagu
ikasteko, baina argi duguna
da: indarkeria horren
jatorrian matxismoa
dagoela, hau da, boterea

bakarra zera da: gizonezkoak indarkeria tresna bezala erabiltzeko heziak daude eta emakumezkoak indarkeria horren objektua izateko prestatu gaituzte. Segur aski, norbaiti esaten ari naizen hau guztia astakeria hutsa iruditzen zaiola. Horrela pentsatzen duenak, mesedez, bi minutu hartu eta pentsatu dezala. Ekarri burura Eguberritan umeei zuzentzen zaizkien iragarkiak, gogoratu jostailuen katalogoak, oraindik urdina eta arrosa erabiltzen dituzte neska eta mutilen jostailuak banatzeko eta klasifikatzeko. Zenbat pistola, kamioi, tanke eta panpin gerlariak erosten dizkiegu oraindik umeak diren gizonezkoek. Neskekin guztiz kontrakoa gertatzen da. Indarkeria kudeatzen ez jakiteko heziak gaude. Filmek oso ondo erakusten digute emakumezkoen makina bat alditan estropezu egiten dugula, atzetik maniako batek jarraitzen digunean.

Gure gobernuak eta bere lege aurreproiektuak lotura hauek ukatzen ditu, berdintasun politikak baztertzen ditu eta gizartearen egoera desorekatua zalantzan jartzen ez dituzten biktimak bakarrik ikusarazten ditu. Agerraldietan indarkeria gaitzetsiko dute, bitartean hipokresia osoz, gizartea kudeatzeko eta antolatzeko indarkeria erabiliko dute. Benetan, indarkeria modu guztiekin bukatu nahi dute? ■



TXANDAN

Amatiño



Ezker Abertzaleak Txillardegi omendu du. Ondo dago gero Txillardegiaren euskararen aldeko adorea eta maisutza omentzea. Gainerakoak ez zaizkit, ordea, horren ulergarri iruditzen.

Txillardegik 1967an utzi zuen ETA, Franco hil baino zortzi urte lehenago eta ETAk armak uztea erabaki baino 44 urte lehenago. Txillardegik ESB (Euskal Sozialisten Biltzarrea) sortu zuen 1976an, politika egiteko eta Euskadi erakundetzeko. Erregimen zaharrak indarrean zirauela gainera, erreforma politikoa erreferendumez onartu aurretik.

Txillardegiaren omenez

Ondo dago Txillardegi omentzea. Baina ETAk ez al du aitortu behar 44 urte kostatu zaiola Txillardegiaren erabaki berbera hartzea? Batasunaren oinordekoek ez al dute onartuko 30 urte baino gehiago behar izan dutela ESB birsortzen amaitzeko?

Omenaldi loretsu gutxiago eta zor-aitorpen gehiago. ETAk zein omenaldigileek Txillardegiari –eta, bide batez, Euskal Herriari– zor dioten aitortza: “Barkatu, Jose Luis, hik asmatu huen eta ez ginuan konturatu. Aitzindari hintzen eta belaunaldi bi kostatu zaizkiguk hartaz jabetzea”. ■



Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Ahal den legez

A

zkenaldi honetan, Ezker Abertzalearen hainbat aldarrikapen legedi ezberdinetara egokitzen ikusi ditugu. Eskubideez harago, eta eskaeren zilegitasuna ukatu gabe, legedi ezberdinek eskaintzen dituzten bitartekoak euren helburu eta praktika politikorako baliagarritzat jo dituzte. Urte bat pasa da Alderdien Legearen ondorioz hartutako illegalizazio prozesu luzeari aurre egiteko Ezker Abertzaleak Sorturen estatutuak aurkeztu zituenetik. Bertan, Iñigo Iruinek alderdi berriaren legezkotasunaren defentsa argia egin zuen. Juridikoki baldintza guztiak betetzen dituenaren zalantza inork gutxik izango du, eta Konstituzio Auzitegiaren ebazpenak legezkotasun hori berretsiko duenaren ideia ere orokorra da.

Presoen auzian ere, badirudi maximalismoak atzean utzi direla. Eragileak eta hainbat politikari legea betetzeaz mintzo dira, (besteek) legea bete dezatela eskatuz. Batzuk presoei begira, eta beste batzuk Espainiako Gobernuari begira, erantzukizun eta ardurak besteari egotziz. Inoiz baino gehiago zainduko dute joko dialektikoa; tinkotasuna islatu behar izaten da horrelako auzi konplexuetan, “besteak” mugitzea lortu denaren garaipena. Zentzu horretan, Espainiako



IÑIGO AZKONA



Pragmatismoak ez du zertan
kolektibo baten duintasuna
kolokan ipini, eta egoerak
eskatzten duen mailan
jardun beharko da,
garai bateko
ortodoxiatik
aldenduz



Gobernuak kartzela politikaren malgutasunaz eta presoei dagozkien onuraz eta esku-bideei buruz hitz egin ordez, bergizarteratzea, barkamenaren ezinbestekotasuna eta neurrien izaera indibiduala nabarmenduko ditu. Ezker Abertzaleak eta presoen kolektiboak aldiz, testuinguru berrian urrunketa eta sakabanaketaren legezkotasun eza azpimarratuko dituzte, legez dagozkien kartzela onurak ere aldarrikatuz; besteak beste, gaitxotasun larriak eta zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenei begira. Nanclareskoen bidea aldiz, hobe ez aipatzea.

Azkenean, uste osoz, ala ezinbestean, denek legea bete beharko dute. Pragmatismoak ez du zertan kolektibo baten duintasuna kolokan ipini, eta egoerak eskatzen duen mailan jardun beharko da, garai bateko ortodoxiatik aldenduz. Alderdi legala izateko Ezker Abertzaleak legezko bitartekoez baliatzea ontzat eman duen bezala, EPPK-k ere bide horri jarraitu beharko duela dirudi. Seguruenik ez da askok irudikatu zuten irtenbidea, baina Kolektiboaz gain, ehundaka gizabanako eta familien sufri-mendua daude jokoan.

Erresistentzia ikur bat baina gehiago dira. Seguruenik kalean gauden asko beranduegi ohartu bagara ere. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



polito doa esango luke nire lagun bizkaitarrak, bere talaia-tik Urkiola, Barazar eta Gor-bea zuri ikusiko lituzkeen bitartean. Santa Agata zuen gustuko, San Mamesera kantuz egiteko parada ematen ziona. Eta entzun ditugunekin, ez zen koblarik faltako, koblakari gai bilatzaile nagienari ere ez zion zeri kantatu faltako, bat bestearen azpian pilatzen joan dira Urkulluk hasi eta Jaurilaritzatik erantzundakoak. Saltzaile dorpeenen eredutik ari zaizkigu. Batek, ez ezazue horrena erosi, nik hortik dastatutako koinatua badut, eta desesperatuta bizi da horien jardunaz. Besteak, ez ezazue horre-

Astea

na sinetsi gezurretan ari zaizue, horrek ez dauka koinaturik-eta. Gaitzerdi txokoren bateko liskarra balitz, koadrilen arteko disputan ariko balira, bata besteari erronka joz balebiltza. Gure sosei buruz ari dira. Urkulluk, Lopezen Jaurilaritzak erreka jo duela. Lopezek, aurrekoek erosi gabekoak ordaindu zituztela eta sosen norakoaz ez dakitela. Eraman zituztela alegia deusen truke. Eta hau guztia, prentsa bilduz, publiko egina. Norbaitek argitu beharko ditu gauzak, batek bere koinatua eta besteak falta diren sosen norakoa agerrarazi. Dagoeneko ados dira biak ezkutuan gordetzeko. ■



ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Ostiral arratsalde batez

Luma gorriko oilandak librako arrautza erruten zuen garaian, bazen herri txiki bat kurioa eta, bere modura, ederra. Itsasadar urdin baten gainean zegoen, eta Amerikak eurak ikus zitezkeen bertatik. Hango etxeetan –baita pobreenetan ere– ez zen euririk sartzen, ari ez zuenean. Ezta kaleko hautsak arrotzen ere, haizerik ez zebilenean.

Baina, inork gogoan ez duen ostiral arratsalde batean, dena nahasi zen bat-batean: ahanzturaz eta mespretxuz hasi ziren bizitzen hangotarrak hiribilduaren arkitektura eta, horrekin batera, bertako denen historia.

KATALOGOAREN DIKTADURA.

Jakina da ezen, besteak beste, historia josten dela hiri baten kale, parke, pasealeku eta eraikuntzetako adabakiekin. Hala ere, eroak zeharo jota, herri hartako lagunek deliberatu zuten trapu berri-berriak behar zituela hiriak, munduan ezaguna izan behar bazuen etorkizunean.

Planifikatu zuten hiri berria –berri-berria–, eta egin zuten, egin, zerrenda bat “barka” zitezkeen eraikuntzekin: artistikoki esanguratsua omen zirenekin, historikoki gogoangarriak ei zirenekin. Elizak eta komentuak salbatu zituzten. Jesuiten unibertsitatea. Lauzpabost aberaskumeren jauregiak...

Horrekin listo. Hor biltzen omen zen, hor, hiriaren arkitektura esanguratsua eta, horrekin batera, hiriaren historia. Katalogo arkitektonikoa bihurtu zen historia ofizialaren kate-kismo.

Eskatu zuten herritarrek honako eraikuntza ez botatzeko, hango parkea salbatzeko, halako zubiari eusteko... Agintariei, bost. Ahaztu egin zitzaizen botere handiko horiei gauza txikietan amore ematea: “Ez dago katalogoan, eta hiriak espazioa behar du modernizatzeke”.



INIGO AZKONA

Katalogotik at geratu ziren libxiba egiteko harraskak erreka bazterretan, atso-agureak eguzkia hartzeko eserlekuak, muinoetako ikustegiak, hiriko gazte denek soldaduska egindako kaserna, bai eta oilanda gorriaren habia bera ere.

Horiek guztiak eraitsi, eta –modernoak bai, baina kanon ezinago gezari jarraituta– eraiki zituzten berrogei solairutik gorako kristalezko palazioak, laurogeiko abiaduran joateko sei erraileko autobideak, metalezko museoak, eta –lur eta espazio gehiago irabazteko aitzakiarekin– mendiak zulatu, tunelak egin eta ordain-saria jarri zuten bertatik pasatzeko.

MODERNITATEA, ZAHAR. Baina, egin zuen, egin, euri. Eta harrotu haizea. Magia hautsita, arrautza erraldoiak erruteari utzi zion oilandak.

Kolpean zahartu zen aurreko urtean modernoa zen dena.

Idatzi zuten katekismo berria: katalogoa. Zerrendatu zituzten elizak, komentuak, eta lauzpabost aberaskumeren jauregiak. Bota zituzten kristalezko dorreak, eraitsi altzairuzko museoak, estali tuneletako ahoak...

Elurak eta izotzak etorri ziren ondoren. Sargoriak eta enbatak... Atzera eregi zituzten dorreak, aurrekoak baino altuagoak. Atzera libratu butxatutako tunelak... Jakina baita pellokeriekin estali ohi direla pellokeriak.

Eta muinotik, arduraz begiratzen zion zaharrek hiriari, bere historia gordetzen ez zekien hiribildu beti gazte eta modako izan nahi zuenari.

Behinolako eserlekuen hutsunea betirako izango zela sumatuta, hiri betetzen zuten buztinezko adreiluak distirari

so eta beha, zioen bere kautan zahar haietako batek: “Burruntziko oiloa janda, burdina jan gura”. ■



Eskatu zuten herritarrek honako eraikuntza ez botatzeko, hango parkea salbatzeko, halako zubiari eusteko... Agintariei, bost. Ahaztu egin zitzaizen botere handiko horiei gauza txikietan amore ematea



irudia:
Antton Olariaga

U. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA

2012ko otsailak 24, ostirala

● Eureka! Zientzia Museoa

■ Donostia

Izen-emate epea
otsailaren 21a arte

kulturgintza
euskararen
garabidean



www.soziolinguistika.org/jardunaldia

*Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak,
ondorioak eta proposamenak.*

(Jon Sarasua)

Kultura-transmisioaren inguruko tailerrak.

(Igor Elortza, Gotzon Barandiaran, Alberto Barandiaran,
Jasone Aldekoa)

IV. Hausnartu sarien banaketa.

(Lehen saria: Paula Kasares)

Euskaltasuna hiritik. Donostia 2016 aitzakia hartuta.

(Eduardo Apodaka)

Euslandia emankizuna.

(Mirian Luki eta Concetta Probanza)



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Laguntzailea



Babesleak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Euskara Zuzendaritza



berria

argia

BERTSO BERRIAK

Unai Agirre

Gerra Zibila



XDZ

I

Hernani herri bildua;
bizi beharrak zaildua;
lanean korapildua.
Mila beatzirehun hogeita hamasei
triste hartan abaildua;
nahigabea amildua;
uztail beltzak umildua;
tiro hotsek isildua.

III

Herri honen azpi lotsak,
desberdinak guztiontzat,
zer indar dun heriotzak!
Galarretatik Tellerigaina
zeramazkiten hilotzak...
hausten zituen bihotzak,
eta isiltasun hotzak:
gurdiaren negar hotsak.

VI

Galdutakoen altzora,
oroigarri eta lora,
jarri duenik asko da.
Hor lurperatu omen zituzten
berrehun gorputzetik gora;
berriz hezurak kanpora,
eraman ziren gerora,
norbaitek badaki nora...

II

Gerrako abioi tutu,
lubaki erdi-ezkutu,
elkarren aurka estutu...
Kanposantuko pareta zaharrek
zer ez zuten ezagutu?
Zahar eta gazteak juntu,
bala errazen jo-puntu;
orduan ziren mututu.

IV

Herriko jende aparta
lurperatu zen hamarka,
zapata eta abarka;
izeba zenak, izen abizen,
esan zizkidan bakarka...
falangista eta *carra*
denez oroitzea marka!
ta ni mututzea barka...

VII

Kanpandorreko ezquila;
agonian norbait hila,
hiru urtez zenbait mila...
Hernanin hainbat hildako utziz
joan zen Gerra Zibila;
askok jarraitzen du bila,
eskatuz entzun dadila:
GERRAREN OIHU ISILA

V

Suntsitze antolamendu
hau da gordean mantendu,
nahiz ta seguru gauden gu.
Ondarretako kartzela zena
gogotikan ezin kendu!
Urri, azaro, abendu,
itsasoak ekartzen du,
baldin entzun nahi bagendu.



DOINUA: Ikusten duzu goizean / **Oharra:** Bertso hauek *Hernani 2011* urtekarian agertu dira



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Artea

Patxi Buldain, egiaren hautua

Sei anai-arrebaren familian 1927an Iruñean sortu zen Patxi Buldain, gizon eta artista konprometitua. 21 urterekin armadatik desertatu eta Frantziara erbesteratu zen. Parisen, Arte Ederrak ikasi zituen eta horrela, haurra zela Zapateria karrikako hirugarreneko paretetan beltzatzen zituen margoak finduz joan zen. Ikasi bazuen ikasi, graffitilari goiztiarra profesional bilakatuko zen. Han, artea “jatekoa bezain beharrezkotzat” duen gizonak, Picasso, Camus, Sartre, Brassens eta errefuxiatu politikoak ezagutu zituen. Eta 85 urtetan, nafar artistak jendeetan eta iraultzan sinesten segitzen du.

ITZIAR MADINA

Argazkiak: Idoia Zabaleta / Argazki Press

PATXI BULDAINEN bizi osoko obra bere izena daraman Fundazio eta Erakustokian ikusgai dago, Uhartan. Aldian aldian, erakusketa berritzen dute eta artistaren bilduman dauden lanak Eusa nafar arkitekto garaiki-deak eraiki zuen etxe argitsuaren paretak biziara ztertu dakartzate. Buldainek teknika eta euskarri ugari landu izan ditu, olioak

oihalaren gainean, gouache, akriliko eta collageak paperaren gainean edota olio eta soka nahasirik zink eta zurezko oholaren gainean. Eta berriki, baita ohetako somierren burdinazko joskerak ere. Erakusketari *Somierren erradiografia* deitu zion.

Arte kritikariek nabarmentzen dute Iruñeko semeak duen jaidura kanpoko eraginetara



irekia izateko, bidenabar bere-berea duen ikuskera mantenduz. “Arma bat ferekatzen duenak heriotza du ferekatzen” erakutsi omen zion Errepublikaren denborako eskolako maisuak. Buldain gazteak haren arrastoa galdu zuen, altxamendu faxistaren ondorioz zer gertatuko ote zitzaion ideia izpirik ez dauka, haren izena bera ahanntzi zuen, baina sekula ez haren hitzak. Harrezkero, Buldain artistaren iparorratza jendetasuna izan da. Hainbestearino non, bere etsaien ohorezko obra egin zuen. *Homenaje a mis enemigos* deitzen da, ohola gainean burdin, akriliko eta olio nahasketaz 2010ean eginiko lana. Gabriel Celayak poesiaren indarra “zikintzeraino parte hartzea” zela uste zuen nola, hala Buldainek beti pentsatu izan du margolaritzak “eguneroko biziaren egia islatu” behar duela.

Oldartu arima

“Ttipitik errebeldea nintzen”, oroitzen da Patxi Buldain, irria ezpainen. “San Francisco eskoletan nintzen, Iruñean. 9 urte nituela, irakasle zintzoa izan genuen. Auto-diziplina lantzen zuen, hots, komunera ala eskuak garbitzera joan gintezkeen hari baimenik eskatu gabe. Gelara sartzen ginelarik, galdetzen zuen: ‘Denak gaude?! Jarriko al gara?’ eta lanean hasten ginen. Mintzatzen zitzaigun Errepublikaren alde, orduan berriki onartua. Guretzat gauza ona zela ziurtatzen zigun. 10 urte nituen gerra hasi zelarik. Eskolara joan eta berehala ohartu ginen: lehoia eta emaztea; badakizu, Errepublikaren ikurra; lurtean botata, hautsia, batzuek porroxxak biltzen ari, eta gure irakaslea ez agertzen. Ez genuen ulertzen, txapel gorri fusildunak bazeuden denean, zer mila deabru gertatu ote zen han? Gelara sartu nahi izan genuen eta fueratu gintuzten: ‘Zuek, pasabidera!’ oihukatu ziguten. Orduan irakasle berriak hirunaka lerrokatu gintuen eta militarrek bezala sarrarazi. Atorra urdina, ttatttarra beltza eta mila marradun jantzia soinean zeramatzan. Autoritatea eta diziplina erakutsi nahi zizkigun, Falangekoa zen, noski. Haren izenaz oroitzen naiz: Don Onieva. *Buenos días Don Onieva, ha descansado usted bien?* erraten genion goizero eta hark erantzuten: *‘Sí, por la gracia de Dios’*. Aldiz beste gizajoren izenik ez dut atxiki, ohartzen zara?! Gero ulertu nuen zer gertatu zitzaiokeen”.

Patxi Buldainekin hitz egitea historian gaindi bidaiatzea da. Desagertu zitekeen, fusilatu zuketean irakasle gorriak airera botatako oldarraren hazia bereganatzen ikusten duzu. “Burgesiak mintzatu zitzaigun, berdintasuna goraipatu zigun irakaslearen baloreak genituen buruan eta horren arabera interpretatzen hasi ginen errealitatea. Kulpa ona zuen gaixoak!”.



Margolaritza, eskapabidea

Zerk eginen zuen ote, faxismoagatik ere Patxi Buldain bilakatuko zela nafar margolari garai-kideetan garrantzitsuenetatik? Galdera bada non ote datekeen Buldainen pinturaren has-tapena, parte-a dudarik gabe, Patxiren fantasiarako izpirituan dela erantzun behar da. Eta bestea, jende xehearen gogo eta zentzu onean. Alabaina, Zapateria kaleko hirugarren zenbakiko zazpigarren solairurako eskaileren igobidean, Buldain haurrak arkatza dantzaz-razten baitzuen, han eta hemen, apaingarri. “Paretetan margotxoak egiten nituen. Pasabi-deko izkinetan, pausatze-ko jarleku batzuk bazeuden, haietan emazteak erosketek kargaturik zetozenean egoten zirela. Ama haserretzen zitzaidan: ‘Berriro ere margotzen ibili haiz!’ Baina beste etxe-koandreek erantzuten zioten: ‘Utz ezan emakume! Oso margo ederrak ditun!’”.

Baina Paris gabe berdin haziko ote zen Buldainen trebezia? Faxismoa ezin jasanak harantz bideratuko zuen, alta. Bizinahiak patua desafiaraziko zion eta “Frantziara” pasatu zen. “Beran nintzen, soldadu. Alegia deus ere, euskal delineatzaile bizkaitarrekin mintzatzen nintzen. Hitz eta pitz, Larrundik beheiti datorren erreka-ostoz xehetasunak eman zizkidaten. Jakin nuen halako lekuan estaltzen dela. Buruan sartu nuen segitu beharreko bidea. Neukan dirua hartu nuen, Astra pistola luze bat 9 milimetrokoa baita eskuko bonba bat. Guardia Zibila atera izan balitzait botako niokeen: buruz burukoa izanen zen, haiek ala ni, eta aurtikiko nuen. Hortaz, bestaldera iragan nintzen. Etxalde batetara heldu eta egun batzuek bertan gelditu nintzen. Kontrabandistak zirenez, gaztelan-iaz bazekiten. Baba txikiak eman zizkidaten

jatera eta erran zidaten: ‘Zoaz erregebidetik. Jendarmeez hartzea behar duzu. Muga hetsirik dago, ez zaitez izutu, ez zoaz eta, atzera ostera’. Baionako parakaidistetara eraman ninduten jendarmeez. 1947 zen. Kuartelean mintzatu, keinuz mintzatu ginen. Gero, erre-fuxiatuen aldeko zentrokoak etorri zitzaizkidan. Eta Pariserako billetea eta handik Frantzia Iparrerako txartela eman zizkidaten”.

“Paris, ma bohème”

Egunez eraikuntzan lanean edo jatetxeetako platerak garbitzen bizi izan zen Patxi Buldain urtetan, Parisen. “Han, antzerkia, literatura, pintura, oro har kulturako abangoardia zegoen. Camus, Sartre, Brassens ere ezagutu nituen. Camusez oroitzen naiz, bereziki. Espainiako presoen aldeko kontzertuetara zetorren. Bere ama espainola zen, jatorriz. Oso gutartekoa zen, Camus. Elkar gurutzatzen genuenean botatzen nion: ‘Hator hona, gizon!’. Mugimendu handia zegoen orduan Parisen, intelektualak mugimendu politikoekin nahasten: komunista, sozialista, anarkista... Ni anarkistekin ibiltzen nintzen eta Camus ere haietakoa zen. Igandero anarkisten zentrorra joaten nintzen, Sainte Marthe karrikara. Bestalde, espainolen ostatuan ere biltzen ginen, arno ona zuelako, Pompe karrikan. ‘Hara anarkistak, arnoa dastatzera datoz!’ erraten ziguten. Beste pintoreekin Montparnasseko Coupolen batzen ginelarik, elkar zirikatzen genuen. Uste genuen literatura, pintura, artea... iraultza eta beste mundu bat egiteko zirela. Orduan ez nuen uste gaurko munduarekin topo egingen genuela. Lorcak jadanik salatua zuen kapitalismoaren basakeria, esklabotasuna, Sacco eta Vanzettiri gertatuko zitzaiena... Orain, niri dagokidanez, natura hautsiaren eta ustelduaren barnean pintatzen dut. Kapitalaren berekoikeriak dakartzan usteldura eta zuhurkeria erakusteko. Beraz Parisen nintzela, lana eta gero pintatzen nuen, Montparnasseko La Grande Chaumière eskolan. Han egon zen Modigliani gu aitzin. Krokisak egiten ikasi nuen. Baina modeloak kopiatzea ez nuen maite. Eta bestalde, gauaz, Bellevilleko Arte Eder eskolara nindoan. Eskola hartarako Arte Ederretan ezagutza izatea eskatzen zuten, lehenik azterketa bat gaingitu behar zelako. Italiar irakasle batek ikusi zuen nire lana eta akuilatu ninduen gauza asko egitera. Klasikoan hasi nintzen margotzen eta halako batez erran zidan: ‘Orain zure usaiekin hautsi behar duzu. Ezker eskuarekin egin behar duzu!’. Eskultura ikasten ere

lagundu ninduen. Eta pintura nire aldetik segitu nuen”.

Gure solasaren haritik horretaturik, ez dezakegu jakin-mina menpera: zein izan ote ziren Patxi Buldainek Pablo Picassorekin izan zituen harremanak? Nafarrak, galderaz harriturik bezala, sinpleki aitortzen digu baietz, harekin erakusketa egin zuela Saint Ouengo museoa. Baina ez dio garrantzi gehiagorik ematen. Zergatik, ote? “Ezin hurbildua zen gizona. Espainiako printzeak baino jende gehiago zeukan inguruan”. Erakusketa hartan erosi zioten Patxi Buldaini bere lehen koadroetatik bat. “Gero handiko Espainiako margo-lari gaztetzat nindukaten. Ez ahantz Saint Ouen Pariseko gerriko gorrian zegoela orduan. Horregatik lagundu zuten gure erakusketa”.

Mende erdia pasa lanean ari dela, behialako gero handiko artista gazteak zer erran liezaioke bada, gaurko artista gai bati? “Egin dudanarekin plazera hartu izan dut, beti. Nire pintura kale hutsekoa da –hala dio: “*de la puta calle*”–, ez dut jende handien erretraturik egin nahi izan, sekula. Inpresionistak; asko anarkistak; nituen

buruan: eguneroko biziaren egia nahi izan dut islatu, egia beste substantzia bat. Horregatik izanen da erraten didatela nire koadroek arrasto zer bait uzten dutela. Edertasuna zertarako? Parisen emazte ederra izan nuen. Oso ederra. Pentsa, gaztean denak gara eder. Baina gero, zer substantzia gutxikoa zen! Bihotzean, izatean datza edertasuna, berekoikeriarik gabe, amodio librean... Horrek izanen du isla nire pinturan: egia *putaren* aldekoa naizelako. Pintura zale gazte bati zera aholka niezaioke: barnean daramazuna isla ezazu. Lehenik ikas ezazu ofizioa, gero zure bihotza entzun. Eginik ez dagoena egin ezazu. Pentsa eta hauta ezazu”. ■



“Edertasuna zertarako? Parisen emazte ederra izan nuen. Oso ederra. Pentsa, gaztean denak gara eder. Baina gero, zer substantzia gutxikoa zen! Bihotzean, izatean datza edertasuna”



Galparsoro
OKINDEGIA

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Eztabaida

Bost ideia Donostia 2016ri buruz

Poloniako Wroclaw-ekin batera Donostia izango da 2016ko Europako Hiriburu Kulturala; izendapena eta Gipuzkoako hiriburuko Udaleko gobernu aldaketa bateratsu etorri ziren iazko ekainean eta horrek ateak zabaltu zizkion, hein batean, egitasmoaren izaerari buruzko eztabaidari. Artikulu honek debate hori modu eraikitzailean egiten lagundu nahi luke.

GORKA BEREZIARTUA

1) 2016ko Europako Hiriburu Kultural izatea ez da (batez ere) gertakari kulturala.

Ñabardura, ezertan segi baino lehen: bai, noski, nola ez, Europako Hiriburu Kultural izendatzeak badauka zerikusia kulturarekin; baina harreman gehiago dauka hiri-eredu batekin, jarduera kulturalekin baino. Erakargarri agertzeko, hiriaren marka indartu nahi izaten da zenbait balore azpimarratuz. Hemengo eta hango hiriburuek moderno, anitz eta dinamiko itxura eman nahi dute baina horrelako kontzeptuak kea haizetan bezala desagertzen dira helduleku zehatzagorik eman ezean. Eta Donostiak kultura aukeratu du, erakargarritasuna ideietatik plano materialera –aurrekontuetara– eramateko. Bartzelonak, eskala askoz handiagoan, kirolaren bidez egin zuen antzeko zerbait 1992ko Olinpiadekin; aurtun Gasteizek ingurumenarekin egingo du, European Green Capital izendatu dutenez. Baina ez Bartzelona da hiri kirolaria-goa 1992az geroztik, ez Gasteiz izango da ekologistagoa urtea bukatzen denean. Izango ote da Donostia “kulturalagoa” 2016 amaitzean? Bai, gaurtik ordura bitartean eguneroko jarduera kulturalak indartzeko ahalegina egiten bada. Ez, Europako Hiriburu Kulturalaren izendapena turismoa eta hirigintza sustatzeko erabiltzen bada nagusiki.

2) Baina zerbait ekar diezaioke Donostiako kulturari.

Ia batera etorri ziren Odonismoaren amaiera eta hark hainbeste irrikaz bultzatutako Europako Hiriburu titulua eskuratzea. Inpresio nahiko zabaldua da izendapena lortzea ez



zegoela gaur egungo Udalaren lehentasunen artean. Gainera, aurreko Udalaren kultura eredua eta oraingoarena diferenteak dira oso; baina Bildu gutxiengoan egonda, kontsentsua bilatzera derrigortuta dago. Abiapuntua hori izanda –Hiriburu Kulturalarekin pasio handirik ez eta derrigorrez oposizioarekin adostu behar–, bi bide ditu aurrean Udal Gobernuak: bere boto emaileak Donostia 2016ren garrantziaz konbentzitzen saiatzea; eta Hiriburu Kulturalaren inguruko jarduerak bestelako jendearengana iristeko probestea. Bigarren aukera horretatik hegemonia kultural berri bat eraikitzen hasteko atak zabaldu ahal zaizkio parez pare Udal berriari. Desberdinen arteko artikulazio-puntuen bitartez egituratzen da hegemonia eta orain arte ezagutu ez ditugun panorama sortzen laguntzen du. Gauzak ondo eginez gero, Donostiaren bizi-modu kulturala biziberritu dezake. Baina hori lortzeko bidean, programazioan eta gidaritzen aukeraketan norberaren konfiantzazko esparrutik harago begiratzea ezinbestekoa izango da.

3) Euskal kultura ez da euskal folklorea bakarrik, ezta euskal *mainstreama* bakarrik ere.

Nahiz eta askotan sinonimo gisa erabiltzen diren “euskal” eta “folkloriko”, eta erdaldun askoren artean euskaraz ekoizten denari buruzko ikuspegi aski distortsionatua sortzen da. Udalean nagusi den Bilduk lehentasunen artean jarri zuen euskal kulturari behar bezalako lekua ematea Donostian, beharrezko zeregina dudarik gabe, urrun baitago Gipuzkoako hiriburua daukan euskaldun portzentajeari dagokion euskarazko eskaintza edukitzetik eta gainera, 2016ko izendapenak aukera ona eskaintzen du euskal kultura nazioartera ateratzeko, hizkuntza nagusiagoen galbahetik pasa gabe –gutxitan izaten den aukera, bidenabar–. Baina kriterio soziolinguistikoa ezin da izan programazioak zehazterakoan kontuan hartuko den bakarra; euskararen aldeko diskriminazio positiboa egitearekin batera, artistikoki zerbait berritzailea eskaintzen dutenak babes- tea ere garrantzitsua da. Gainontzean, kanpoan ikusiko dutena euskal *mainstreama* izango baita; eta nekez justifika daiteke ezkerretik, politika kultural publikoek jada arrakastatsua denaren aldeko apustua egitea. Jarrera hori alderdi kontserbadoreena izan beharko litzateke –eta gaur egun ez da haiena bakarrik–.

Bi bide ditu aurrean Udal Gobernuak: bere boto emaileak Donostia 2016ren garrantziaz konbentzitzen saiatzea; eta Hiriburu Kulturalaren inguruko jarduerak bestelako jendearengana iristeko probestea

4) Kultura “herrikoi” vs. kultura “elitista” dikotomiak ez du funtzionatzen.

Mantra bihurtzeraino errepikatu da “kultura herrikoi eta parte hartzaile” formula; eta behin eta berriz errepikatzen diren esaldi gehienak bezala, edukiz hustuta dago. Parte-hartze dinamikez hurrengo puntuan hitz egingo dugu, baina “herrikoi” izenondoak merezi du bigarren buelta bat asko luzatu gabe. Zertaz ari gara “kultura herrikoi” aipatzen dugunean? Zertan desberdintzen dira “kultura herrikoi” eta “kultura elitista”? Bi eredu horiek kontrajartzen zituen eskema problema asko ematen ditu gaur egungo sorkuntza kulturalak sailkatzeko: urte asssko pasa dira ekoizpen kulturala prozesu industrial bihurtu zenetik, eta hori gertatzearekin batera herriarena zen kultura eta eliteena, biak fenomeno berri batek irentsi zituen: “masa kultura”-k. Horrek esan nahi du, produktu kulturaletara iristeko aukerak asko zabaldu direla, herritar arruntak badaukala goi-mailako kultura kontsumitzerik, ez egiteko arrazoiak ez dela ekonomikoa –herrikoi/elitista banaketak funtzionatzen zuen garaian hala zen– eta beraz publikoaren jakin-mina piztea bihurtu dela problema. Heziketan dago arazoa, gehienbat; ez programatutako artisten mailan.

5) “Parte-hartzea” eta benetako parte-hartzea.

Parte-hartzeaz hitz egiten ez duen agintaririk ez dago Mendebaldeko herrialdeetan, baina benetako ordua iristean gutxitan gautzen da; instituzioetan gutxienez. Eredu parte-hartzaileak izan badira, ordea; baita kulturaren ere. Nola integratu demokrazia zuzenaren bidez funtzionatzen duten gune kulturalak –gaztetxeak, kasu– hain itxura instituzionala daukan Hiriburu Kulturalaren markapean? Oso urrun bizi izan dira urte askoan kulturagune autonomoak eta ofizialak, baina borondate politikoa egonez gero, hurbiltzeko momentu egokia izan daiteke 2016koa. Gazteteen eredutik gertu egon daitekeen antolamenduak irtenbidea eman diezaioke Donostian ez aurrera eta ez atzera dauden zenbait egitasmori, Tabakalerari, adibidez. Esperientzia interesgarriak martxan daude tamaina bereko eraikinetan, instituzioen elkarlanarekin eta auto-gestioan oinarrituta, Madrilo Tabakalera kasu. Horrelako zerbait egiten saiatuko ote dira agintariak? ■



Liburuak

KRITIKA

Artze frikia

Hemeroteka

Aritz Galarrraga

JAIO GABEAK GINENOK ere egin dezagun ariketa: 69an gaude –69 betean, ezen ez batean–. Euskal literaturaz ari garela, pleistozenoan edo. Lozorrotik esnatzen ari da dinosauroa –katutxo, esango dute errealistenek–. Kolpetik agertzen da JosAnton Artze delako bat, *Zeruko Argian*-eta kolaboratu izan duena, harako Ez dok amairu hartan txalaparta berreskuratzen aritu izan dena; baina liburu argital-pengintzan artean birjina duguna. Eta ateratzen du *Isturitzetik Tolosan barru* izeneko, xuabe esatearren, zera bat. Zera bat berria, berritzailea, apurtzailea, *uppercuta* irakurlearen matrailezurrera. Ez dut nik esaten, Juan San Martinek daitor liburuan berean, garaia pulstua hartuta: “Ez baita erreza izanzen liburu honi kidekorik arkitzea”.

Poema bilduma gisa dugu sailkatu, baina izatez da zer edo zer gozoagoa. Objektu artistikoa Koldo Izagirreran hitzetan, biltzen baitu poema sorta, bai, baina egiten du modu berezian, ikusgarrian, leitzeko testuak bakarrik ez, begiekin jatekoak ere bailiran.



Isturitzetik Tolosan barru.
JosAnton Artze.
Pamiela, 2007
(lehen edizioa 1969).
144 orrialde. 20 euro.

Estetika du ausarta, diseinua dago poemaren, bildumaren menara, liburu bilakatuz eszenario multiplea. Eta liburu azkenerako da abentura bat, ez dakit Isturitzetik Tolosan barrurakoa, baina bai literarioa.

Eta ez soilik abentura estetikoa, poemetan ere gai berriak ematen dira, edo gaiak ematen dira ikuspegi berritik, indarrean zeuden ideiekiko oldarkor; tarteka nahita lizun-zikinak, marteka kolpe labur lirikoak. Eta esango dut: liburu irakurri ondoren, *Txorria txori* ez da akaso Artzeren poema lortuenetako bat. Edo tira, hain dago mitifikatua, onaren eta txarraren gainetik dagoela jada –eta azpitik ere bai, estutzen banauzu–. Baina iruditeria popularrean iltzaturik geratu diren poemetatik harago, Artze osatuago bat ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu *Isturitzetik Tolosan barru* lanak.

Bere garaian oihartzuna izandakoa, ahanzturaren neguan ez ote zen erori gero, desmemorian geratzeraino. Ahanztura horrek kitzikatuta etorri zen 2007ko edizio hau, edizio faksimila, orijinala bere kontzepzioan errespetatzen duena. Bidean geratua berreskuratzeke. Bidea ireki zuena berriz errailean sartzeko. Gaur egunetik irakurketa berriak egin ahal izateko, zergatik ez. Eta literaturaz asko dakien irakasle batek esan izan dit, ahots apalean esan ere, idazle friki gisa kalifika lezakeela lasai asko Artze gaurko oinezko irakurleak. Bego. Ez dateke agian erabat okerra, ez guztiz txarra halaber. 69an jaio gabeak ginenok ere ez baitezagun ahantz: irakurketak biziarazten duela denboran barrena literatur lana.



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Diskoak

IKER BARANDIARAN



La ciudad de las palmeras.

Muy Fellini.

Gor.

Iraupena: 46'02". 9 euro.

Tempo lasaiaren eta distortsioaren arteko sentiberatasuna

IRUÑEKO BIKOTEAK (bateria, gitarra eta ahotsa oinarrian) indie deritzon mantu zabalaren pean idazten ditu kankak, iraganean beste proiektu batzuetan jorratutako estilo gogorretatik urrunduz. Harrituta utzi nau istorioak kontatzeko erabilitako errezitatu-tonuak, pop-ean erabat finkatuta. Eta tempo oso neurtuak nagusi badira ere, bada intentsitatearekin jokatzeko tentaziorik, baita noisearen distortsio bihurrik eta Neil Youngen tamainako

gitarra basatirik ere. 1990eko hamarkadan gogor finkatutako koordinatuez hitz egiten ari garenez, saihestezina da Dinosaur Jr., Yo La Tengo edo Los Planetas gogora ekartzea, baina emaitza aberatsagoa da, aipatutakoez gain, mugaldeko ezaugarriak ere badi-tuelako. Eta gaztelaniaz idatzitako hitzak sentiberak dira, gaztaroko ton-takeriarik gabekoak.

www.myspace.com/muyfellini

Edu Ugarte - Muy Fellini

«Gaur egungo indie-ak ez nau erakartzen, guztia pentsatuta, bideratuta eta egituratuta duelako»

“Palmeren hiria ez zen bizitzeko leku onena”. Nolakoa da Iruñea talde batentzat?

Ez da Madril eztaartzelona ere, hemen ez dira halako gertaerak ematen, baina ondo dago. Aukerak aurkitzeko kanpora jo beharra duzu, baina luzaroan onuragarria da. Hirietan gaur onena dena bihar zaharkitua gelditu da, gauzak azkarregi doaz eta hori nekagarria da.

“Tristura honek zitala egiten nau”. Baina hori gabe aurkituko zenukete inspiraziorik?

Ez, arrazoi osoa duzu. Pozik egon gabe kanta alai bat egiteak ez du emaitza onik ematen. Agian saiatu gaitezke whisky, rock-and-roll eta bikini-festei buruz idazten, baina seguruenik ez zen oso sinesgarria izango.

“Malenkonía eta neurtutako errealis-moa”. Taldearen definizio aproposa?

Bai, baina orain aldaketa prozesuan



Edu Ugarte (ezkerra) eta Juan Maravik osatzen dute taldea.

gaude eta zuzenekoak gogortzen hasiak gara.

Zuenak moduko diskoek erakusten dute indie-ak kolore asko dituela?

Indie etiketa asko prostituitu da azken urteotan. Gaur egungo indie-ak ez nau asko erakartzen, guztia pentsatuta, bideratuta eta egituratuta duelako. Lehen irekia-goia zen.

Dinosaur Jr. eta Yo La Tengo, alderdi basatiak eta poperoak dituzten bi talde horiek oso barneratuta daude zuen kromosometan...

Bai. Gure bi talde gustukoenetakoak dira, izugarritzko ibilbidea dutenak. Yo La Tengorekin asko identifikatzen gara; gai dira abesti oso gitarreroak eta oso lasaiak egiteko, eta diskoak erabat aldatzen dira. Musikarekiko ikuspegi hori daukagu, ez lerrokatzea eta unean uneko konposatzeko sena ez mugatzea.

Transformación, El verano... Neil Youngen “Mirrorball”-ek asko eman dizue, ezta?

Neil Young gure lehen diskoa bideratzeko oso garrantzitsua izan zen. Eta entzunaldi horietako batzuk *Transformación*en islatzen dira, bai. *El verano*ri dagokionez REMen *Automatic for the people* lanaren oihartzunak dituela esango nuke. ■



Ezpalak

JON TORNER

‘Aita, zombia naiz’ animaziozko filma estreinatu da



RICARDO RAMON eta Joan Espinachek zuzendutako *Aita, zombia naiz* animaziozko filma estreinatu da Euskal Herriko zinema aretoetan. Filmak Gijongo (España) Nazioarteko Zinemaldiko azken edizioan *Enfants Terribles* saria eskuratu du eta Goya Sarietan animaziozko film onenaren saria jasotzeko finalisten artean dago. Dixie 13 urteko neskato gotikoa da film honetako protagonista. Zonbien artean bizitakoaren ostean eguneroko arazoei aurre egiten ikasiko du. Abra Prod eta Digital Dreams Film-ek ekoiztu dute filma, Eusko Jaurlaritzaren, EITBren eta ICAAren laguntzarekin.

YouTube du ardatz Gaztearen XXI. Maketa Lehiaketak



ABIAN DA Gaztea irratia-
ren XXI. Ma-
keta Lehiaketa.
Diskoetxe
batekin kon-
traturik ez
duten talde
eta bakarla-
riek har deza-

kete parte. Irabazleak 6.000 euro jasoko ditu, bideo-
klip bat grabatzeko aukera izango du eta Bilbao BBK
Live jaialdian joko du, uztailean. Maketa lehiaketara
aurkeztu beharreko kantak YouTube-ra igo eta Gaztea-
ko formularioan (www.eitb.com/eu/gaztea/maketa-lehiaketa) txertatu behar dira, martxoaren 7a baino
lehen. Abesti guztiak EITBren YouTubeko kanalean
izango dira entzungai. Argazkian ageri direnak iaz ir-
bazi zuen Enkore talde bilbotarreko kideak dira.

Kukai dantza
konpainiak
Out/in lan berria
eskainiko du
otsailaren 25ean
Donostiako Gaz-
teszena aretoan,
eta martxoaren
8an Principal
antzokian. Iazko
maiatzean sortutako *Karrikan* ikuskizuna (argazkian)
abiapuntutzat hartuta, bi koreografiak osatzen dute
lan berria: *Aupa mutil* eta *Sorbatza*. Jon Mayak zuzen-
tzen duen konpainiak Iker Gomez, Damian Muñoz
eta Virginia Garcia koreografoekin egin du lan *Out/In*
ikuskizunean.



Bobby McFerrin, Et Incarnatus orkestrarekin ari-
tuko den Antony (Antony and the Johnsons) musika-
ria, Jamaican Legends, Ray Gelato, Marc Ribot eta
Peter Evans ariuko dira, besteak beste, Donostiako
Jazzaldian. Aurten ere milioi eta erdi euro inguruko
aurrekontua izango du Jazzaldiak. Uztailaren 19tik
23ra egingo da eta nobedade gisa, Victoria Eugenia
antzokiaren mendeurrena dela eta, doako kontzertuak
izango dira bertan. Bestalde, Gasteizko Jazzaldiak ere
hiru saxo-jotzailearen izenak aurreratu ditu: Sonny
Rollins, Joe Lovano eta Joshua Redman.

● **Asier Barandiaran literatura ikerlariaren hitzak jaso ditu Berriak, Gatazka Nafarroako euskal literaturan liburuaren harira:** «Askotarikoak dira idazle nafarren jarrerak. Eleberrigintzan, adibidez, nabarmentzekoa da egin duten ekarpena. Badira euskal gatazkaren begirada periferikoa ematen asmatu duten sortzaileak. Gatazkaren inguruan badago berbaldi politiko bat, eta diskurtso horien zentzugabekeria erakusten asmatu dute idazleek. Pertsonaia konkretu batzuen borroka existentziala kontatu eta berbaldi politikoarekin parekatu dute. Diskurtso politikoa nahiko itsusi gelditzen da gizakiaren aberastasunaren aldean. Asmatu egin dute horretan, baita literaturaren bidez gatazkaren alderdi batzuk salatzen ere. (...) Bertsolariak, batzuen eta besteen indarkeriarekin lotura duten gaiak lantzen direnean kontuz ibili behar luke; publikoarekiko kohesioari eusteko unea da. Publikoan egon daiteke indarkeria mota bat edo bestea jasan duen jendea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Leilaren iturri begiak

La source des femmes / Emakumeen iturbegia (2011).
Zuzendaria: Radu Mihaileanu. Aktoreak: Leïla Bekhti,
Hafsia Herzi, Biyouna, Sabrina Ouazani, Saleh Bakri.
Hiam Abbass. Generoa: Komedia dramatikoak.

LA SOURCE DES FEMMES filma komedia dramatikoak da. Radu Mihaileanu, bere zuzendaria, Bukaresten jaio zen 1958an. 1980an, Nicolae Ceausescuren Errumania-
niatik ihes egin zuen Israelera, aitaren sorlekura, erre-
fuxiatzeko. Alta, bada, zine erreizadore frantsesa da.

Istorioa –historia garaikidea– herri txiki batean ger-
tatzen da, Iparraldeko Afrikaren eta Ekialde Hurbila-
ren arteko lurralde zehatzgubean. Emakumeak antzi-
nako denboraz geroztik iturrira doaz urketara egunero,
mendi patarretan goiti eta beheiti, eguzki bero astuna-
ren pean. Leila (Leïla Bekhti) gazte ezkonberriak mai-
tasuna ez egiteko (*Grève de l'amour*) proposatu die herri-
ko emakumei: “Gizonek ura herrira ekartzen ez
duteno, agortu dira eurentzako gure laztanak”.

Gizon-emazteen arteko gatazka herrixka musul-
man batean gertatzen da, hots, Koran-en legeak agin-
tzen duen lurraldean. Ilargia sekula ezkutatzen ez den
lur idorretan, gizonezkoen irudira antolatutako jen-
darteak. Emakumeak arbasoen usadioen menpe bizi-
tzera behartutako inguruabarrean, eiki. “Emakumeak
ur bila joan ohi dira mendez mendez, gizonezkoen
menpean errotutako tradizioa da” diotso Leilari Fati-
ma amaginarrebak. Fatima Sami-ren ama da (Hiam
Abbass eta Saleh Bakri, hurrenez hurren). Sami eta
Leila bikotekideak dira. Jakina denez, amaginarreba
ama politikoa da. Ama munduko izate zoragarrieta-
koa da, baina “politikoa” izenordea daramanean bes-
telako izakaria dukezu –Leila– maitea.

Gizonezkoen aburuz “eguzkiak emakumeen kas-



kezurrean jo ezezik, burmuinak usteldu dizkie”. Ez
dago beste azalpenik. Emakumea eguraldia igartzen
duen txoria da, denborari aurre egiten dion izakaria,
azal zuloetatik kalipua bor-bor isurtzen duena...

Antigoalekotik heldu zaigun kondaira, to!

“Zergatik ez dugu erabakiko gizonek bezala, zerga-
tik? Ez dugu amore emanen”, dio Leilak. Leilak Sami
dauka alboan: “Borrokatzeko eskubidea duzu prin-
tzesa, ekiozu. Egin maitasunaren gerra, baina egin
maitasunez eta errespetuz” diotso Samik. Leila baina,
deabruak hartuta dago tribuko Allah-en gizonen
begietara. Leilak *Vieux Fusilen* (Biyouna) sostengua
dauka hala berean, andre kuraia: “Eutsi, ez etzi
Leila! Erakutsi iezazkiezu zure kuraia eta sentimen-
duak!” diotso arbasoen usadioen ekarle den herriko
atso-agure sorginak.

Gerra hasten denean bukatzen jakitea da zailena.
Amaitzen jakin behar da ordea. Gerran, gainera, gure
izatearen alderdi ezezagunak azaleratu ohi
ditugu, Leilaren azal izerditsutik kuraia nola.

Baina, hara, horiek guztiak zuk zeuk
idoro beharko dituzu irakurle, emaku-
meen iturbururaino bide eginez.









Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi
nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ANA ZAMBRANO

Gaia: Belarjale basatiak



Kike Amonarrizen umorea

Herriko Plaza Nagusiko banku batean eserita tziko ote dute nire seme-alabek hiltzen naizen egunean?



– N i r e
artean pen-
tsatzen ari
nintzen... Zer ida-

Eta tartetxo
bat pentsa-
tzen pasatu
eta gero, Joan
Joxek:

– Apartamen-
tua salgai!

Soluzioa

	O	H	B	H	
E	R	A	K	E	T
	E	R	M	I	T
	T	I	R	A	J
J	G	O	N	L	A
Z	L	A	T	P	A
F	D	E	A	Z	I
	L	O	T	A	N
J	A	I	E	T	A
		E	T	O	R
		Z	A	B	A
		J	A	K	I



Joha e Pitrau
(1929-1975)

**Nekazariak
esnarazi zituen
lider zuberotarra**

Datorren astean

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Harrak hazi armiarma-zeta lortzeko

GIZAKIAK EZ DU LORTU armiarma-sarearen propietateak artifizialki imitatzeari. Armiarma-sareak malguak eta gogorrak dira aldi berean, eta bi konzeptu horiek ia kontrajarriak daudela esan daiteke.

Armiarma-zetak aplikazio ugari izan ditzake gure gizartean, kantitate egokian lortuz gero; erabil liteke biomedikuntzan, zauriak sendatzeko bentetan edota lotailuen konponketan, edota ordezkapenean, balen aurkako txalekoetan, automobilen airbagetan, kirol arropan...

Nola ekoiztu bada, produktu preziatu hori era masiboan? Armiarma "etxalde" bat antolatzea ezinezkoa da, armiarmek lur-eremuak defenditzen baitituzte sutuki, eta kasu askotan kani-balismoa ere praktikatzan baitute.

AEBetako Notre Dame unibertsitateko ikerlari talde batek aurrerapen handiak egin ditu jada ezaguna zen bide batean, har transgenikoen bidean alegia. Antza denez, posible izango da, ikerlarien arabera, eskala handian harrak ekoiztea eta haiengandik armiarma-zeta eskuratzea.



Usain txarraren aurkako galtzerdiak

KATALUNIako UNIBERTSITATE POLITEKNIKOAK, Sutran enpresarekin elkarlanean, usain txarra kendu eta oinetako larruazalean ondorioz sortzen ez duten galtzerdiak ekoiztu ditu. Horretarako osasungintzan erabiltzen den zelulosazko zuntza tratatu dute eragin bakterizida duten eta hezetasuna xurgatzeko balio duten hainbat osagairekin. Laborategiko probetan *Staphylococcus aerus*-en %99,8 eta *Klebsiella pneumoide*-ren %97,8 desagertzaren direla ikusi dute. Bi bakterio horiek dira usain txarra sortzen dutenak, hain zuzen ere.

Askotan zilarra izaten da bakterizida gisa erabiltzen den substantzia, baina horrek kalte egiten dio azalari. Kasu honetan berriz, zinka erabili dute besteak beste.

Sutran enpresak ezaugarri berriak dituzten jantziak produzitzeko asmoa agertu du. Baina, zein salneurritan?



Ingeniaritza genetikoa eta industrialia uztartuta

Ordenagailuz lagunduriko diseinua, CAD siglekin ezagutzen dena, makinarian, arkitekturetan edota zirkuitu integratuetan erabiltzen den marrazteko teknologia da. Orain, AEBetan, ARN molekula multzoen irudiak egiteko erabiltzen hasi dira, ingeniari-tza genetikoari beste indar bat eman asmoz.

<http://ttiki.com/34878> (Gaztelaniaz)

Aurpegiko adierazpenen jatorria eta eboluzioa

AEB eta Kanadako zenbait ikerlarik gizakiok aurpegiarekin egiten ditugun adierazpenen nondik norakoak aztertu dituzte, eta ondorioztatu dute horietako batzuk ez direla gureak bakarrik.

<http://ttiki.com/34879> (Gaztelaniaz)

Hotzetako kutsadura

Ohikoa izaten da udan, antizikloia dagoenean, eguratsuko airea ez berritzea eta ondorioz hiri handietan arnas arazoak izatea poluzioaren eraginez. European urtarrilean eta otsailan egon den antizikloiaren eraginez hiri handietan –Paris kasu– alarma gorria piztu da, egurra erretzen duten berogailuek igorritako partikulen kopuruagatik batez ere.

<http://ttiki.com/34880> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Herrilana

LANDAREAK ETA ANIMALIAK sinbiosian eta elkar laguntzeko mutualismoan nonahi eta noiznahi topatuko ditugu. Sataginak, saguzarrak, erleak, txindurriak... Asko ari dira eta denek dute zer irabazia landareekin elkarlanari ekinez gero.

Tankera askotako elkarlanak daude. Gure artean modan dagoen lorra edo auzolana bezalakoak batzuk.



30.000 barazki aldaera galdu dugu azken mendean; sei orduro bat desagerrarazten dugu.

Auzolana, irauteko ere komerietan dabilenari laguntzeko lan juxtu hori... Beste batzuen herrilana bezalako elkarlana nahiago nik. Iraupena ziurtatua eta ongi biziagatik, den-denok hobeto bizitzeko aukerak laiatzen dituen herrilana.

Guk, halere, ez landare ez animaliekin elkar bizi-terik nahi. Itxuraz.

Datuak argigarriak dira, biribil askoak. Adi:

- 1900. urtetik hona jakien aniztasuna %75 murriztu da Europan eta %93 AEBetan.
- Azienda aldaeren %33 desagertu da edo laster galduko da.
- Azken mendean 30.000 barazki aldaera edo barietate galdu dugu. Sei orduro beste bat desagerrarazten dugu.
- Itsasoetako arrainen %75 galzorian da.

Landareekin eta ekosistema osoarekin egin dezakegun herrilana, denontzako aberastasuna da. Bada, mundu guztian herrilana jasaten ari den eraso kapitalaren hiru ekimen nagusitan bideratuta dago: lanaren balioa gutxietea, jakintza eta ezagutzaren komertzializazioa eta naturaren presaka eta muturkako suntsipena. Lehengo astean esana du Boaventura Sousa Santos soziologo portu-galdarrak. Ni erabat nator. Nondik eutsi behar diogu gure herrilari?



400 olibondo aldaera

Olea europea var *europaea*, olibondoaren aldaera ugariei lotutako aberastasun genetikoak jasotzen duen banku bat dago Kordoban (Espainia), Olibondo Germoplasman Munduko Bankua. Munduko bazter askotatik eramandako 400dik gorako barietate edo aldaeraren ondare genetikoak jasotzen eta jagoten dute bertan. Tartean Euskal Herrian milaka urtetan bertakotu diren aldaerak ere izango dira. Kanpotik ekarritako landarea izanagatik aspaldi baitugu bertako olibondoa. Adibidez, Nafarroako eta Arabako olioari izaera berezia eranstean dion Arroniz aldaera eta bere ekotipo desberdinak.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertzea 28. beheko solairua 1-2
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Daniel Defoeren euskal hiriak



Ezkerrean, Daniel Defoe (1660-1731). Eskuinean, idazleak deskribatutako hirietako bat, Gasteiz, XVII. mendean.

LONDRES, 1728. Daniel Defoe idazleak *Military Memoirs of Capt. George Carleton* abenturazko nobela argitaratu zuen, eta bertan hainbat euskal hiri deskribatu zituen, protagonistaren bidaiak aitzakia hartuta. Badakigu gaztetan *Robinson Crusoe*ren egilea Iberiar penintsulan izan zela, baina ez zehazki zer lurralde bisitatu zituen. Gainera, ezagutzen ez zituen lekuei buruzko informazioa biltzen eta horiek deskribatzen trebea zen. Beraz, ez dakigu deskribapenok lehen eskukoak diren.

Nobelaren erdialdera, akzioa Iruñera iristen da. Defoeren hitzetan, “mendi garaiez inguratutako haran atseginean” dago hiria. “Zorionez edo zoritxarrez” jesuiten ordena hantxe sortu zela dio, Ignazio Loiolakoa bertan zauritu izan ez balute ordena ez zukeela sortuko argudiatuta.

Carleton kapitaina nobelaren amaieran itzultzen da Euskal Herrira, Gasteizera hain zuzen. “Hiri gozo eta atsegina” zela esan arren, Defoe ez zen asko luzatu hiria deskribatzen eta protagonista Bilbora bidali zuen. “Bilbo, oso handia ez bada ere, hiri ederra, garbia eta ordenatua da. Amsterdamen bezala, ez dizute hirian gurdiz sartzen uzten, merkataritza gune garrantzitsua izan arren”.

Kapitainaren hurrengo geldialdia: Donostia. “Oso hiri garbia da, ederki

zolatua, eta hori ez da batere ohikoa Espainian. Harresi sendoak inguratzen du hiria, eta zitadela ederra ere badu”. Donibane Lohizune ere aipatzen da nobelan, “Frantziako hiririk garrantzitsuenetakoa” zela dio, eta protagonistak bertan ederki jan zuela aipatzen du.

Eta azkenik, kapitaina Ingalaterrara bidean itsasoratu baino lehen, Baiona du hizpide Defoek: “Hiri segurua da berez, ibaiaz bestaldean zitadela eraiki zutenetik gotorlekuak nahiko utzita dauden arren”. *Pont D'Esprit*en nagusiki juduak bizi zirela dio, merkataritzan aritzen zirela eta “munduko gainerako tokietan bezala, modu irregularrean” jarduten zutela.

Euskal hiriak laudatu arren, Defoe ez zien egurra juduei soilik eman. “Bizkaian ez nion inori ulertzen (...) Mandazainak Babelako nahasketatik aldatu ez den hizkuntza dutela esan zidan, hizkuntzatzat baitaukate. Nire ustez, nahasketa horren ondorioa baino ez da (...) Harro daude ez erromatarrek, ez kartagoarrek, ez banda-loek, ez godoek, ez zituztelako mendean hartu. Baina lurralde hori ezagutzen duen edonork daki egia, (...) ez erromatarrek, ez kartagoarrek ez beste inork, ez zuen lur malkartsu eta antzu hori konkistatzeko inolako interesik”.



Arrastoak

Jane Austen pozoituta hil al zen?

JANE AUSTEN (1775-1817) idazle ingelesa ziurrenik artsenikoaren ondorioengatik hil zela jakinarazi berri du Lindsay Ashford idazleak. Ashfordek gutun bat topatu zuen Austenen liburutegian. *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* nobelaren egileak hil baino lehentxeago idatzi zuen eskutitza, eta zera zioen: “Hobeto nago, itxura hobea daukat, orban zuri eta beltzek desitxuratu banaute ere”. Ashfordek artseniko bidezko pozoiduraren ohiko sintomatzat jo zituen orban horiek, eta gainera museo batean gordetzen den Austenen ile xerlo bati egindako azterketek artsenikoan positibo eman zutela baieztatu du.

Dena den, hilketarik ez zela izan adierazi du, garai hartan artsenikoa botika askotan erabiltzen zelako eta, ziurrenik, Austenek erreuma arintzeko hartu zuelako.



Roberto Lavagna

«Murrizketa politikek porrot egiten dute»

Argentinako ekonomiari beste norabide bat eman zion Roberto Lavagnak Ekonomia ministro izan zen urteetan. 2001ean hasitako krisiari aurre egiteko, kreditu emaileei zorra ordaintzeari utzi eta ekoizpena handitzeko politikak abiarazi zituen. Argentinak *corralitotik* ateratzea lortu zuen eta hazkunde handiko garaia hasi zen. Esperientzia hura eta egun Greziak bizi duena erkatu ditu elkarriketa honetan ekonomialariak.

Testua eta argazkiak:
GORKA BERASATEGI

ROBERTO LAVAGNA (Buenos Aires, 1942) Argentinako ekonomia ministro izan zen Eduardo Duhalde presidentearen agintaldian eta Nestor Kirchnerren lehenengo gobernuan (2002-2005). Argentinak bizi izan zuen krisi latzaren ondoren ekonomia berreskuratzeko plana diseinatu zuen Lavagnak. Orduko Argentinak eta gaurko Greziak zenbait antzekotasun onartzen dituzte ministro ohiaren ustez. Argentinako esperientziak zenbait irakaspen utzi ditu murrizketa sozialetan oinarritutako politiken inguruan.

Lavagnak 2002ko apirilean hartu zuen kargua. Hilabete gutxi lehenago, 2001eko abenduan enfrentamendu gogorrak izan ziren herritar eta polizien artean. Estatuko indarrek 38 herritar hil zituzten errepresioan. De la Rúa presidentek dimisioa eman zuen, bi asteko epean bost presidente izendatu ziren. Politikarien sinesgarritasun falta erabatekoa zen krisiren eztandaren ostean.

Ekonomia ministro kargua hartu zenuenean nolakoa zen Argentinaren egoera ekonomikoa?

Argentinak defizit fiskal garrantzitsua zuen, kontu korronteko defizita ere bazuen, eta hiper-inflazioaren bidean zegoen. Gizarte egoera ere oso zen larria: argentinaren %52



Lavagna bere bulegoan, elkarriketa egiteko unean.



EDUARDO DUHALDE.COM

Duhalde presidentearekin solasean 2002an, krisiaren garai gogorrean.

eta %54 artean pobrezia egoeran zegoen, %18ko langabezian, inbertsiorik ez eta, beraz, lanpostuak sortzeko aukerarik ez zen ageri epe laburrean. Ordurako, herrialdeko Barne Produktu Gordina (BPG) uzkuartzen ari zen laugarren urtez jarraian. Gainera, agintean zegoena [Eduardo Duhalde] Konstituzioa errespetatuz izendatu zuten arren, bestelakoa zen kontua herriarren atxikimenduari zegokionez. Kongresuan ez genuen gehiengorik. Alderdi Justizialistako (alderdi peronista) gobernadoreek 30 eguneko ultimatum eman zioten Duhalderi eta 14 puntuko programa ekonomikoa betetzeko eskatu zioten nik kargua hartu baino egun bat lehenago.

Konparagarria al da Argentinak bizi zuen egoera egun Europan bizi den egoerarekin?

Nik Greziari buruz hitz egingo nuke espresuki. Ez baita gauza bera Greziaren egoera edo Italia nahiz Espainiarena. Greziaren kasuan datu ekonomikoak oso antzekoak dira. Defizit bikia du (fiskala eta kontu korronteak), ekonomia uzkuartzen ari da laugarren urtez jarraian, langabezi tasa altua dauka... Antzekotasun asko daude ekonomikoki, inflazioan izan ezik. Argentina hiper-inflazioaren bidean zihoan eta hori ez da gertatzen ari Greziaren kasuan.

Desberdintasun handienak gizarte arloan aurkitzen dira. Grezian

askoz hobe da gizarte egoera. Biztanleko diru sarrera askoz ere altuagoa da, neurri handi batean Europar Batasuneko kide delako. Eta erakundeei dagokien ere aldeak nabarmenak dira. Argentina guztiz isolaturik zegoen eta Grezia munduko talde politiko eta ekonomiko boteretsuenetako baten parte da. Borondate politikoa egonez gero, bada arazoei aurre egiteko baliabiderik. Borondaterik ba ote den beste kontu bat da. Greziaren inguruan sortu den mugimendua ikusita, gutxienez, eztabaida piztu da. Argentinaren kasuan ez zegoen halakorik. Gehien jota, Argentinan esku hartzeko aukera aztertu zen, Lehenengo Mundu Gerraren ostean Austriarekin egin zen moduan.

Gertatzen dena da Greziaren kasua ez dela ongi kudeatu eta kutsatze prozesu bat dagoela dirudi, kasu askotan neurriz kanpokoak. Greziako eta Italiako ekonomien

"Argentinak laguntza lortzeko politika ekonomikoa nazioarteko finantza erakundeen esku utzi behar zuen. Nik kreditu eskari guztiak bertan behera utzi eta ezetz esan nien"

artean desberdintasun nabarmenak daude, esaterako, lehiakortasunaren esparruan.

Argentinak murrizketen errezetak jarraitu zituen 90eko hamarkadan eta zuk kargua hartu artean. Programa haiek zorraren interesak ordaindu ahal izateko finantziarioaren truke gauzatzen ziren. Zuk bestelako estra-tegia eraman zenuen aurrera. Zein analisi egin zenuen orduan?

Analisia errealitatea ezagutzetik abiatzen da. Egoera ekonomiko latz horretan murrizketa gehiago proposatzea, Nazioarteko Moneta Funtzak (NMF) egin zuen moduan, hain zen irigarria, beste bide bat hartu behar zela erabaki bainuen. Aurreko gobernuek kredituak negoziatu zituzten NMFekin eta handik gutxira krisiaren erdian geunden. Zein zen NMFren logika? "Bai, ongi da, murrizketa programak burutu dira baina gogorrak behar dute arrakasta lortzeko". Programek ez zuten porrot egiten desegokiak zirelako, nahikoa gogorrak ez zirelako baizik. Beraz, gutxi balitz, programa bakoitza aurrekoa baino gogorragoa izaten zen. Logika horren arabera, herrialdeak superabita lortu behar du kreditu emaleei interesak ordaindu ahal izateko. Planteamendu egokia izan daiteke baldintza normaletan baina Argentinak bizi zuen egoera edo Greziak orain bi urte bizi zuenean, ez du inolako zentzurik.

Murrizketen aukera baztertzeko erabakiak babesa izan zuen Gobernuan edo oztopoak izan ziren gehiago?

Argentinaren azken 40 urteetako arazoak, neurri batean, muturreko jarreraren ondorio dira. Izan dira gobernu militarrek edo zibilak baita eskuinekoak eta populismo sasi-ezkertiarrak ere. Populistek sistema poliziala ezarri nahi zuten prezioak kontrolatzeko. Eskuinak Estatuari eskatzen zion bankuen zorren ardura bereganatzeko. Azkenean, bankuei esan zitzaizkien zorren erantzukizuna haiena zela eta populistak gobernutik kanporatuak izan ziren.

Kreditu emaleekin negoziatu behar izan zenuen, nazioarteko finantza

erakundeekin. Haiek ordurako beste murrizketa plan bat prestatua zuten, ezta?

Nazioarteko finantza erakundeek prest zuten Argentinarentzako 20 eta 25 mila milioi dolarreko kreditua. *Default* egoera ekidin nahi zuten, ez zuten nahi Argentinak ordainketak eteterik. Kreditu hori emateko, ordea, beste murrizketa plan bat gauzatzeko eskatzen zuten. Europako hainbat estatutan gaur ikusten ditugun moduko murrizketa planak. Argentinako Gobernuak halako laguntza lortzeko herrialdearen politika ekonomikoa erakunde horien esku utzi behar zuen. Nik kreditu eskari guztiak bertan behar utzi nituen eta ezetz esan nien, Argentina bakarrik irten-go zela egoera horretatik. Noski, kreditu emaleei interesak ordaintzeko gure ahalmena askoz ere txikiagoa izango zen eta horrek kezkatzen zituen. Hiru aldiz errepikatu behar izan nuen erabakia. Ez zuten inolaz ere espero.

Argentinak zorra ordaintzeari utzi zion eta zorraren berregituraketa negoziatu zuen 2003an nazioarteko finantza erakunde nagusienekin. Kreditu emaleei zorra ordaintzeari utziko zitzaioala esan zenienean zer erantzun zuten?

Ez zitzairen batere gustatu! Bestalde, populismoak *default*-a ospatzen zuen eta *default* egoera beti da porrotaren adierazgarri, ez da ospatzeko moduko gertakizuna. Nola konpondu daitekeen pentsatu behar da. Eskuina, berriz, iraintzen hasi zen. Argentina Zambiarekin eta Eritrearekin alderatzen zuten. Esta-

tu guztiek egin dituzte halakoak. Zorrari buruz dagoen ikerketarik garrantzitsuen hartuz gero, ikus daiteke Espainiak, Alemaniak eta Frantziak Argentinak baino *default* gehiago izan dituztela. Ez diot nik, Carmen Reinhart Munduko Bankuko ekonomista buru izandakoak baizik.

Argentinak, beraz, krisitik irtetea lortu zuen kanpoko finantzaziorik gabe. Zein baliabide zituen Estatuak aurrera egiteko?

Sektore pribatuaren zorrari zegozkion interesak ordaintzeari utzi zitzaionean zenbait baliabide libratu ziren bestelako helburuetarako. Bestalde, ekoizpena berreskuratzea izan zen lehentasuna. Hala, espiral onuragarria ipini nahi genuen abian. Ekoizpena handitzen bada Estatuak biltzen duen diruak ere gora egiten du.

"Grezia drakmara itzuli daiteke herrialde barruko eragiketa guztietarako eta euroan jarraitu gainontzeko eragiketetarako. Egingarria da"

Nola lortu zen ekoizpena berreskuratzea?

Argentinaren kasuan hainbat bide-tatik lortu genuen. Bideetako bat monetaren debaluazioa izan zen. Ekonomian, moneta debaluatzen denean eta inflazioa kontrolatzea

lortzen denean, bestelako prezio zerrenda lortzen da: ekoizpen lokala eta esportazioak sustatu eta inportazioak garestitzen dituen. Hala, lehiakortasuna lortzen da.

Bestalde, gastu publikoa handitu genuen eta gizarte plan zabala ipini zen indarrean. Munduko Bankuak esan zuen ordura arteko gizarte planik handiena izan zela eta 2.200.000 familiengana iritsi ziren Estatuaren diru laguntzak. Bankuek eskatzen zutena betez gero, ez genuke horretarako dirurik izango.

Ondorioz, eskaria handitzen hasten da, horrek ekoizpenari laguntzen dio eta espiral onuragarria martxan ipintzen da. Soldatak hobetzen hasten dira, gizarte egoera hobetzen da, Estatuaren balantza fiskala orekatzen hasten da, kontsumoak ere gora egiten du eta merkaturia handitu ahala inbertsioentzako geroz eta interesgarriago bihurtzen da herrialdea, inbertsioak heltzen dira...

Pesoak dolarrari lotuta jarraitzen bazuen ezin izango zen debaluatu. Beraz, moneta politika propioa berreskuratzea garrantzizkoa izan zen. Bai, noski. Politika monetarioa eta fiskala. Izan ere, superabita lortzeko NMFak luzatzen zituen aholkuak ez zuten zer ikusirik ekoizpenarekin eta ekonomia berreskuratzearekin. Zegoena nola banatu zen NMFrentzat kontua. Banku eta kreditu emaileen aldeko eta jendearen kontrako banaketa egitea, alegia. Horregatik jaitsi ziren soldatak %13, murriztu ziren erretiroak eta pentsioak eta kaleratu ziren langileak aurreko programetan. Grezian

bardoak 2012

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea

naufarroko bertsozale elkartea

haurtaldea

argia

LEHENENGO FASEA
URTARRILAREN 27tik OTSAILAREN 19ra
(12 SAIO)

BIGARREN FASEA
MARTXOAREN 2tik MARTXOAREN 18ra
(6 SAIO)

FINALA
MARTXOAREN 31n, LEITZAN
HIRU TALDE, BIDERATZI BERTSOLARI

Informazio osoa eta zurrerak

www.BARDOAK.com



"Zegoena nola banatu zen Nazioarteko Moneta Funtsarentzat kontua. Banku eta kreditu emaileen aldeko eta jendearen kontrako banaketa egitea, alegia. Horregatik jaitsi ziren soldatak %13, murriztu ziren erretiroak eta kaleratu ziren langileak."

bezalaxe. Nolakoa da Greziaren kasua? Soldatak %14 murriztu dituzte %13ren ordez. Puntutxo bat gehitu diote. 100.000 langile publiko kalera... Programak beti dira horrelakoak eta ia beti porrot egiten dute.

Euroa oztupo al da Greziaren berreskurapen ekonomikorako?

Dena denbora kontua da. Bi bide daude Greziak lehiakortasuna berreskuratu ahal izateko. Bide luzeak, 10 urte edo gehiago iraun dezake eta bitarte horretan greziarrak finantzatzea eskatzen du. Greziak betebeharrak ongi egiten baditu, finantzaketa zientzian, hezkuntzan, teknologian eta azpiegiturretan inbertitzen badute, lehiakortasuna hobetu egingo da. Baina nik ez ditut europarrak oso prestu

ikusten greziarrak 10 urtez finantzatzeko. Dena den, teknikoki bide posiblea da.

Bide laburra, debaluazioarena da; eurotik guztiz irten gabe. Hau da, moneta nazionala sor daiteke, drakmara itzuli herrialde barruko eragiketa guztietarako eta euroan jarraitu gainontzeko eragiketarako. Noski, inflazioa kontrolatu beharko litzateke baina egingarria da.

"Gaur etekina ez da lortzen katiluak edo patatak ekoitziz, balio errealik ez duten paperak mugituz lortzen da, 2008an ikusi genuen bezala"

Zein irakaspen atera daitezke Argentinak bizi izan zuen krisi hartatik?

Lehenengo eta behin, murrizketa politikek porrot egiten dutela. Bigarrenik, baldintza jakinetan eta zor maila batetik aurrera, zorren berregituraketa egitea beste aukerarik ez dagoela. Adibidez, Greziaren kasuan zorra orain bi urte negoziatu izan balitz, demagun 50 urtera, eta interes tasa baxua ezarri izan balitzaio, japoniar erara (%0,1eko interesa), zorren presioa txikiagoa litzake aurrekontuetan. Justu kontrakoa egin zuten.

Azkenaldian ahotan dabilta "finantza diktadura" edo "zorkrazia" gisako terminoak. Hitz egokiak iruditzen zaizkizu bizi dugun egoera deskribatzeko?

Zein da errealitatea? Orain 40-50 urte bazen ekoizpen esfera bat -industria, nekazaritza, merkataritza, eta abar- eta bazen finantza esfera bat, nolabait, lehenengoaren zerbitzura. Biak ere tamaina antzeko esferak ziren edo 2:1eko proportzioarekin, asko jota, finantzaren alde. Azken 40 urteetan gertatu dena finantza esferaren hazkundera izan da eta egun ekoizpen esfera baino askoz ere handiagoa da. Etekinen desmaterializatzea gertatu da. Gaur etekina ez da lortzen katiluak edo patatak ekoitziz, balio errealik ez duten paperak mugituz lortzen da, 2008an ikusi genuen moduan. Tamainaz gaindiko finantza sektore baten aurrean gaude eta, gainera, kontrolik gabe ari da berean.

Nola kontrolatu, orduan, finantza sektorea?

Mundu politikoak gehieneko tamaina ezarri beharko lieke finantzei, baita izan behar duten kapital kopuruari buruzko neurriak ere. Horrez gain, finantza transakzioentzako zerga sortu behar da, duela urte asko James Tobin Nobel saridunak gomendatu zuen moduan. Finantza esfera ekoizpenaren esferatik guztiz banantzea saihestu behar da eta munduko ekonomiaren etekinak ez daitezela soilik "kasino finantzariotik" etorri, neurri batean ekonomia errealetik ere sor daitezela baizik. ■





Euskal Herriko eta munduko aktualitatearen argazkia

Oparitu **Argia** harpidetza

independentzia astero ikusten da

Andoni Landa

euskara irakaslea Arabako Errioxan

«Zer pizgarri dute hemengo umeek euskaraz hitz egiteko?»

Bi urte igarotzeko asmotan heldu zen Oiona Andoni Landa Arozena (Nuarbe auzoa, Azpeitia, 1966). Hogei urte baino gehiago joan dira ordudanik. Euskara irakasten hasi zen, eta horretan ari da gaur egun ere, IKA euskaltegian. Urteen joanean ikusi eta bizi izan duena erakutsi digu.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero



“Sopelan edo Oionen nola izango dira, bada, arrazoi berak euskara ikasteko”.

21 urte daramatzazu euskara erakusten hemen, Oionen.

Baina ez hemen bakarrik. Oionen dugu bulegoa, euskaltegia, eta Guardian ere bai, baina beharra non dagoen, hantxe erakusten dugu euskaraz. Hara, kilometro kopuru bera egiten dugu Oiondik Nafarroa aldera, eta Araba barrenera. Menda-biatik Bastidaraino gabiltza. Bitartean, berdin gabiltza Viana, Moreda, Oion, Bilar, Kripan, Guardia, Bastida, Navaridas edo Logroño.

Logroño? Nork ikasi nahi du euskara han?

Gasteizko, Bilboko eta Donostiako jendeak, eta bertako batzuek ere bai. Ez da nobedadea, nahiz eta zu zeharo harritu. Euskaldunak dira, Euskal Herritik kanpora lanean ari direnak. Beste batzuk badira familiak euskaldunak, Logroño haziak, bere burua euskalduntzat dutenak. ETB1en Titin pilotariari buruz esaten dituztenak ulertu nahi dituzte beste batzuek... Badira, gainera, euskara Logroño-koa ere badela defendatzen dutenak.

Hamar urte badira han euskarazko eskolak ematen direna. Urte batean, unibertsitateko bi ikasle izan nituen. Lan bat egin zuten *Fon-tes [Linguae Vasconum]* aldizkarian, Logroño ziren hilarri batzuk aztertu zituzten. Jatorri ezezagunekoak omen ziren, edo bisigodoak. Gogoa daukat, haietako bat, eskolan galdezka: "Andoni, zer da Agirrezar?" Jatorri ezezagunekoak omen zen! Horri buelta ematen hasi ziren, eta Jose Maria San Sebastian Latxagaren liburu bat hartu zuten: *El euske-ra en la Rioja*. Lehenengo asmoa, euskal etxea egitea zuten. Baina ez zituzten, nonbait, Jaurilaritzaren gutxienekoak betetzen. Bazkideak ere ez behar beste, nonbait, eta euskal etxe izatera iritsi ez badira ere, elkartea osatua dute, Laminiturri, eta lanean ari dira, gauza dinamikoak egiten: webgunea, irtenaldiak, hitzaldiak, euskara eskolak...

Hortik zuen ikasle harrobia Logroño...

Joan deneko 21 urtean beti izan dira euskarazko eskolak Logroño, edo hona etorri dira Logroño-koak, edo hemengo ikastolara bidali dituzte Logroño bizi diren euskaldun askok

beren seme-alabak. Hasieran, Logroño euskara taldeak izan genitzan lokala alokatu zuten Laminiturri elkartekoek baina mantentzerik ez, eta Oionera jo behar izan zuten ordura arte bezala. Gero, Logroño-ko Herri Unibertsitatearen berri izan genuen. Han, beste gauza askoren artean, ingelesa eta frantsesa erakusten zituzten, eta galegoa, katalana eta euskararen hastapen ikastaroak eskaini nahi izan zituzten. Etorri ziren guregana, eta haiekin kolaboratzen hasi ginen. Baina eskola ordu gutxi ematen genuen, oso ikasle gutxi etortzen zen hortik gure ohiko erritmoe-tara. Bost bat urtean pare bat baino ez zitzaizkigun hurbildu. Azkenean, EGA zuen ikasle gazte bat, irakasle ikasten ari zena, eskaini genien irakasle lanetarako, eta horrelaxe egin genuen. Probetxu handiagoa behar genuela erabaki eta Hizkuntza Eskola Ofizialarekin hizketan hasi ginen, ikas-prozesua Logroño ere ziurtatu nahi genuelako. Bi hitzetan esateko, duela hiru urte dozena bat ikasle hasi ziren euskara ikasten eta zortzi-hamar bat ari dira gaur egun.

**"Gehiago dira titulua
buruan darabiltenak,
'euskara ikasi nahi dut'
esanez datozenak baino.
Hala ere, ikasle
euskaltzalea dugu"**

Zergatik ikasten du euskaraz Bastida, Lapuebla, Oiongoak... Sopelan eta hemen arrazoiak berak ote dira?

Sopelan edo Oionen nola izango dira, bada, arrazoi berak. Urte asko dira Oionen euskara galdu zela. Ez dago Arabako Errioxan amona edo birramona euskaldunik izan duen inor, ez bada ez dakit nongoa zelako edo ez dakit non bizi izan zelako... Euskara duela urte asko galdu zen hemen, eta 40 urte ere ez dira joan berreskuratze lanetan hasi zirenetik. "Galdu" esandakoan hitz egiteari buruz ari naiz. Izan ere, toponimia euskalduna asko dago, abizenak zer esanik ez; hemengo Zabala, Gainzarain eta gainerakoak! Euskara ikasi nahi duenak arrazoi berak ezin izan Oionen eta Sopelan. Ez zait irudi-

Ikasle euskaltzalea Arabako Errioxan

"Ikaslearen nahia, adibidez. Garai batean nabarmenago zen euskaraz hitz egiteko nahia. Orain titulua da gehien aipatzen dena. Hala ere, gutxi dira titulugatik bakarrik ari direnak. Oro har, euskaltzalea da Arabako Errioxan euskara ikasten duena. Egia da, orain dela hamabost urte mendi irteera bat proposatu eta laurogei lagunek ematen zutela izena, eta, orain, aldez, bostek; eta horien artean, irakasle dira bi. Euskalduntasuna beste era batera bizi dute gaur egun, baina nik esango nuke ikasle euskaltzaleak ditugula: haurrak ikastolan dituzten edo izango dituzten gurasoak; Osakidetzan, Foru Aldundian, basozaintzan eta horrelakoetan funtzionario bidean dabilzanak; irakaskuntzari lotuta ari diren ikasleak, irakasle ikasten ari direnak, batik bat; eta bestelakoak, betidanik euskaraz ikasi nahi izan duen erretiratua, euskal kantak ulertu nahi dituen gazte rockeroa, txikitik ikasi eta ia ahaztutakoa, eskolan ikasitakoa hobetu nahi duena... Makina bat jende, bata besteagandik ezberdina".

tzen. Han, integrazioa, identitatea eta horrelakoak izango dira. Hemen integrazioa ez da arrazoia. Identitatea, berriz, kontuan hartzekoa da, nahiz eta azken urteotan tituluak direla-eta ezkutuan geratzen ari den. Euskaltzalea ez den gutxi izango da gure euskaltegian. Titulu beharra, lanerako sarbidea... Motibazio instrumentala... baliteke berdintsua izatea hemen eta Sopelan, baina, esan dut, ez dut uste hemen titulugatik bakarrik, edo gogoz kontra ari den inor dugunik; izatekotan ere, oso gutxi. Seme-alabak ikastolara daramatzanak, berriz, haiei lagundu nahi izaten die. Hortik ere izango da.

Aldatuko zen perfila urteen poderioz.

Ni etorri nintzen garaitik hona, duela hamar urte ezagutu nuen ikas-

Berreskuratzea

"Euskara berreskuratzeakotan, hemen egiten ari garena ez da nahikoa. Euskaraz ikasi nahi duen heldua euskaltegia datorkigu, eta haren seme-alabak, berriz, ikastolara doaz. Euskara berreskuratzea lehentasunezkoa baldin bada, bide horiek ez ditugu nahikoak. Esaterako, nork hartzen du kontuan euskara inor lanpostu batean kontratatzerakoan? Orain dela urte batzuk gertatua: Arabar Errioxako kuadrillan, turismo bulegoa ireki eta teknikaria hartu zuten.

Kultura zinegotziak esan zidan: 'Badugu turismo teknikaria! Frantsesez eta ingelesez ere badaki!' Eta nik: 'Oso ondo. Eta euskaraz, ba al daki?' 'Ez diogu galdetu!' Horixe. Euskaraz jakin behar zuen, ez zuen... Burutik pasatu ere ez. Euskara bera ere baloratu beharko da, bada? Esana dut lehen ere, norbanakoaren borondate hutsez ez dugu euskara arrera aterako. Azkenean, ekonomiarekin lotu beharko dugu euskara, bestela ez dago egitekorik".

le kopuru handiena: 1995-1996 urte inguru haietan 200 ikasletik oso gertu izan ginen Arabako Errioxan. Sekulako lana genuen taldeak han eta hemen ordu ezberdinetan osatzeko. Bateko, nekazariak Villabuenan: "Irailean ezin dugu, lanez lepo izan ohi gara. Maiatzean ere ez. Tarteetan beharko du!". "Guk, neguan zazpietatik bederatziatara, nahi duzuen! Baina udazken eta udabe-

rrian bederatzi eta erdietatik aurrera izan behar du" esaten ziguten beste batzuek. Orain ez da horrelakorik: ikasleen nahiak ezagutu ondoren, ezartzen dugu ordutegia, eta jendea hartara makurtzen da. Nekazariak, egia esan, gutxi. Gehiago dira titulua eta hizkuntza eskakizunak buruan darabiltzatenak, "euskara ikasi nahi dut" esanez datozenak baino. Hala ere, era bateko edo beste pizgarria izan buruan, ikasle euskaltzalea dugu.

Ikaslearen arrazoi eta motibazioak berdin-ezberdinak. Eta irakasleak eskola emateko erak, berdinak?

Ezin izan berdina, ikaslearen motibazioa ere diferentea delako. Beste arrazoi bat eskolak ematerakoan desberdin aritzeko, EGAko klaseetan ere gertatu zaidana: "Nor da Sarrionandia? Nor izan zen Fernando Amezketarra? Nor da Andoni Egaña? Non dago Maule?" Ikasleek aztarrenik ere ez. Klaseetan euskara ikasteaz aparte, euskal kultura sartu beharra dugu, euskara maitatzen hasteko ekintzak egin beharra dugu. Sopelan, pentsatu nahi dut, euskal kultura hurbilagotik biziko dutela, eta sentsibilizazioan eta motibazioan hemen baino lan gutxiago beharko dela.

Euskara titulua aipatu dituzu arestian. Titulu eske etortzen zaizkizue ikasleak Oionen?

Askok bai. Izan ere, nahiz eta titulurik behar ez, maila bat gainditzean ikasleak euskara ikasten gastatu

duen diruaren zati handi bat itzuli egiten zaio eta garai hauetan... Titulu eske dela-eta, EGA nahiko du, adibidez, ikastolan nahiz eskolan erakutsi nahi duenak. Gehienak, irakasle ikasten ari direnak, eta, batez ere, hartarako asmoa dutenak ditugu, EGA taldeetan. Baina bestela ere titulu nahia asko areagotu da gizartean. Baditugu ikastola eta eskoletako gazte osatutako taldeak ere. Gurasoek seme-alabak titulua eskuratuta amaitzea nahi zuten heziketa prozesua. Inguru honetan, mailarik handiena Lapueblan batxilergoko bigarren mailan ari diren ikasleek dute. Hara bitartean lortu duten euskara maila hobetzerik ez dute erraz.

Zergatik ez?

Ondoren asko eta asko Logroñora, Zaragozara joango direlako, edo ikasteari utziko diotelako. Batxilergoa ikasi bitartean EGA eskuratzea asko eskatzea da, denbora gehiago behar dute. Beraz, zera pentsatu genuen duela urte batzuk: azkeneko urtean bakarrik saiatu beharrean, lau urte lehenago hastea. Hortaz, titulua eskuratzeko interesa zutenak prestatzen hasi ginen, eskola orduz kanpo, astean bi orduz. Lapueblan hasi ginen esperientzia, Assa ikastolako euskara irakaslearekin elkarlanean. Eskola orduz kanpo, astean bi ordu, euskara landu, euskaraz gozatu, euskaraz hitz egin... gauza asko, denbora gutxian. Lapueblan eta Oionen izan ditugu taldeak, eta Vianakoak, Bastidakoak eta besteak ere Lapueblara bildu izan dira. Denera, urtean 30 ikasle izan ohi ditugu EGA ikastarootan.

Ikasgaien erdiak euskaraz egiten dituenak, nonbait, ez du titulurik beharko, "salbuetsita" egongo omen da...

Ikasleek ekarri zuten notizia, eta galdera: "Egia al da Magisteritza euskaraz eginez gero ez dugula EGA agiria beharko?". Guk, "ikusiko dugu!" esan besterik ezin genuen. Horrela dio dekretuak, baina egia al da? Azken hiru urteotan gurekin maila hori prestatzen ibilitako ikastolako ikasleak herenak besterik ez du gainditu 2. mailako egiaztatze-maila. Uste nuen jen-



"Oraindik ere, udal askok uste du ikastola eta euskaltegia irekita badaude, nahikoa dela".

deak atzera egingo zuela, dekretu horren esamesari heldu eta ez zuela ikastarorik egingo, baina, hara non 27 ikasle bildu zaizkigun Lapueblan, hamasei Oionen, eta hamabi Laguardiako institutuan. Propagandarik onena egin digute! Dekretu, agiri, titulu... Ikasleek irakasleari galdetu izan diotenean ere, “aizu, egia al da...?”, irakaslearen erantzuna: “Ez dakigu oraindik, baina betiere seguruagoa titulua eskuan baldin badaukazu!”. Eta segurura jo dute ikasleek, ostiraleko ikastera bilduta. Hamalau urtetik gorako ikasleak, jo eta ke ikasten.

Zertan da euskararen erabilera Oionen eta Arabako Errioxan?

Lehenengo esan behar da ezagutza mailak gora egin duela hemen ere, baina ikasi dutenek, dakitenek, gaztetxo eta gazteek, ez dute euskaraz hitz egiteko ohiturarik. Jakina, gurasoek bidalita ohi doaz seme-alabak ikastolara, ez da haien hautua. Zer pizgarri dute ume horiek euskaraz hitz egiteko? Gu ikusten gaituztenean, orduantxe, gurasoek umeari: “Hitz egin Andonirekin euskaraz, berak badaki eta!”. Eta umea lotsa-lotsa, eta mutu, burumakur. Zaila da ume horrek euskara baloratzea. Gelan euskaraz eginda ere —onean—, patioan gaztelaniaz egingo du, eta zer esanik ez ikastetxetik kanpora, gurasoak ere halaxe ari direlako eta gurasoak dira haurren erreferentzia... Baten batek esango du: “Baina hori umetan! Gaztetan aldatu egiten da hori!”. Esango nioke nik, aldatzekotan okerrera ez ote den izango, hamalau-hamabost urte, eta nora joango da Oiongo gaztea parrandan, ligatzera? Gasteiza, ordubeteko bidean, ala Logroñora, bost kilometrora? Nora joaten gara helduok zinemara, jate-txeetara, erosketak egitera? Logroñora! Gaztelaniaz bizi den lekura.



“Ikastolan ikasitako bi gaztek elkarri euskaraz egiteko konpromisoa sinatu dutenean edo bertso taldea osatu dela ikustean gure lanean berrindartu egiten gara”.

Ezker-eskuin beti esaten den leloa, azkenik: “Asko egin da joan deneko 25 urte honetan”.

Kopuruari dagokionez, asko lortu dugu 25 urtean. Eta aurrera begira ere asko egingo dugulako ustea dut. Euskararen inguruan gabiltzanok —Tiki-ttaka elkarteak, Euskararen Aholku Batzordeak eta gainerakook—, adostu dugunez, norbanakoaren borondatea ez da nahikoa, gehiago behar da gizarteak onartutako elebitasunera iris-

erantzukizuna hartzeko. Baina, oraindik ere, udal askok uste du ikastola eta euskaltegia irekita badaude, nahikoa dela. Horiek irekita edukitzeak bermatzen dituela euskaldunaren eskubide guztiak, ez dagoela beste zereginik... Lan astuna izan ohi da ikuspuntu horiek aldarazten ibiltzea. Horrela ibili beste erremediorik ez dugu, ordea: herritarrei atxikimendua eskatzen, herritarren artean ikasteko sentsibilizazioa lantzen, erabilerara sustatzeko ekintzak prestatzen... Batzuetan, horrela ibili beharra dugunean, beheraldiak izan ohi ditugu baina euskaraz gurekin ikasi duen bat bere seme-alabari euskaraz ari dela entzundakoan, edo jaio berriari euskaraz egiteko konpromisoa hartu duen heldua euskaltegira sartzen denean, edo ikastolan ikasitako bi gaztek elkarri euskaraz egiteko konpromisoa sinatu dutenean edo bertso taldea osatu dela ikustean... gure lanean berrindartu egiten gara. Horri heldu nahiko nioke nik. ■

“Nora joango da Oiongo gaztea? Gasteiza, ordubeteko bidean, ala Logroñora, bost kilometrora, gaztelaniaz bizi den lekura?”

teko, gazteek euskaraz egiteko... Zabaltzen ari gara mezua: sektore bakoitzean aztertu behar da zer egin euskaraz aurrera egiteko. Dударik gabe, instituzioek egoerari aurre egin behar diote, bada garaia



Babeslea: Errenteriako Udal



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

Kazeta.info eta 'La Setmana' laguntzarik gabe

DIRU-LAGUNTZARIK ez dute jasoko ez direlako informazio orokorreko hedabideak. Hala adierazi die Frantziako Prentsa eta Prentsa Agentzien Batzordeak euskara hutsean aritzen den Kazeta.info Ipar Euskal Herriko webguneari eta okzitanierazko webgunea osatzeko asmoa zuen *La Setmana* astekariari. Batzordeak argudiatu du bata euskara hutsean zabaltzen duela informazioa eta bigarrenak okzitaniera hutsezko webgunea abian jartzea zuela buruan. Hori dela medio, ez lirateke informazio orokorreko

hedabideak eta Batzordeak ezin ditu diruz lagundu. Vistedit sozietateak kaleratzen du *La Setmana* paperezko astekaria eta hedabide horretako materiala baliatu nahi zuten proiektu digitala abiatzeko. Vistedit sozietateak horrela erantzun dio Batzordeari, "hemendik aurrera prentsaren aniztasunaren alde jokatu nahi duen orok jakin dezala frantsesez behar duela bere egitasmoa aurrera eraman diru publikoa eskuratu ahal izateko".

TV3 legalizatu dute Ipar Katalunian

IPAR KATALUNIAN ikusi ikusten zuten telebista katalanez, Frantziako Esta-

tuak onartu egin izan duelako, baina ez legezkoa zelako. Orain bai, orain Frantziako Ikus-entzunezkoen Kontseilu Gorenak eta Frekuentzien Agentzia Nazionalak TVCren telebista kateak 37. katean kokatu ditu. Horrek esan nahi du Ipar Katalunian bizi den kataluniako TV3, 33, 3/24 eta Super 3 telebista kateak ikusten segi ahalko dutela orain arte bezala, baina hemendik aurrera emisioak legalak izango dira. Ez da Frantzia hizkuntza gutxiagotuen aldeko politika lehen postuan ibiltzen den horietakoa, baina oraingoan keinu txikitxo bat egitea otu zaio. Ea Valentziako Gobernuak gauza bera egiten duen eta behingoz han ere TV3 lasai ikus dezaketen. Etxean ez gabilta askoz hobeto, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ETB Nafarroan digitalean ikusteko azpiegiturak paratzea garestia dela esaten segitzen dute. Espainiako Gobernuak hari horri tiraka EAko militantei zigor espedienteak ireki die, baimenik gabe ETB ikusteko hedagailua paratzeagatik Erreniegan.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Erreforma basatiaren kontra: subiranotasuna

PPk inposaturiko lan erreforma, enpresariei eta haien interesak ordezkatzen dituzten talde politikoei baino ez zaie gustatzen. Patronalaren interesen zerbitzura dagoen lan erreforma da, hau da, Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioaren (EEEK) eta honek Euskal Herrian dituen sukurtsalen zerbitzura dagoen erreforma. Gustuko dute, hartutako neurriekin pozik daudelako, baita norabide onean doalako ere. Norabide enpresarial eta kapitalista, alegia. Norabide onean badoa, horrek esan nahi du neurri gogorrak espero dituztela PPren Gobernuarengandik. Eta neurriak iritsiko dira, Espainiako EEEK-k ez ezik, Nazioarteko Moneta Funtsak, Europako Banku Zentralak eta merkatuek ere (banku handiak eta nazioarteko inbertitzaileak) hala eskatzen dutelako. Eta iritsiko dira, Espainiako Estatua esku hartutako estatua delako jadanik, ofizialki horrela onartzen ez badute ere. Ondorioz, kaleratzeak merkatzea, lan prekarietatea handitzea, negozioazio kolektiboari mugak jartzea, soldadak murriztea eta abar, erreforma basatiaren hasiera besterik ez dira. Langabezia, prekarietatea, pobrezia, bazterketa soziala eta zentralizazioa ekarriko ditu erreformak.

Erantzun sendoa behar da langile eta herri sektoreetan, etorriko den eraso kapitalista eta basatiari aurre egiteko. Euskal Herriak, gure subiranotasun ekonomiko eta politikoa exijitzeko mobilizazio soziala, sindikala eta politikoa ekarriko duen programa ekintzailea behar da; gure politika ekonomikoa, soziala eta laborala erabaki dezagun. Eta gu geu izan gaitzen Europarekin negoziatuko dugunak, Frantzia eta Espainia moduko bitartekaririk gabe. Haiek baino hobeto defendatuko ditugu gure interesak.

Juan Mari Arregi



BAHEA

Agusti Villaronga *Pa negre* filmaren zuzendariak banatzaile eta ekoiztetxei buruz *Berria*n esanak: "Katalunian, hizkuntza normalizazioa politikoki asko defendatu dute beti, eta *Pa negre*-ren arrakastarekin liluraturik daude. Katalunian, Balearretan eta Valentzian izan duen arrakasta haientzat garaipen handia da, ikusten dutelako hizkuntza propioak merkatuan defendatuko diren produktuak egin ditzakeela, katalanezko filmek ez dutela beste ezeren beharrik zinemetan defendatzeko. Hau gertatu zaien lehen aldia izan da, eta poz-pozik daude horrekin. Horrez gain, bitxia ematen badu ere, Espainiatik kanpo, bertsio originala eskatzen ziguten katalanez, nahiz eta gaztelaniazko bertsioa hautatzeko aukera bazuten, baina guztiek nahi zuten kopia katalana; azpidatziekin, noski, baina katalanezko zinta".

Lan erreforma, pobreziaren ate

PP-REN lan erreforma latza eta gogorra iragarrita zegoen eta hala gertatu da. Ondorioak ere halakoxeak izango dira, Mariano Rajoyren gobernuak berak aitortzen duen moduan. Baina oso gaitza da sinestea hortik bizkortze ekonomikorik etorriko denik. Pobreziaren lan erreforma da hau, lan baldintzen kaskartzeak lan errenten txikitzea ekarriko baitu. Eta lana sortuko balu ere, txirotze prozesu horren testuinguruan egingo luke, lan baldintzak asko kaskartuko direlako.

Adibide bat: gazteen esparruarena (Espainiak ia %44ko langabezia du gazteen artean). Erreforma honekin, aurrerantzean gazte bat enpresaz enpresa ibili ahalko litzateke 16tik 33ra urte arte, ia edozein unetan kaleratua izateko mehatxuarekin eta formazio kontratuen bidez 481 euroko soldata eskuratuz (honek lehen gehienez hiru urtez iraun zezakeen). Hori, legez, posible litzateke.

Liberalismoak zurruntasuna eta malgutasuna kontrajartzen ditu maila guztietan. Estatuari malgutasuna eskatzen dio etengabe, honek ekonomia mugiarazten duelakoan, zurruntasunak oztopoak besterik ez dakartzanean. Eskubideak zurruntasuna dira, eskubide eza malgutasuna. Liberalismo hutsaren logikan, azken finean, langabezia eskubideei lotutako gaitza da, langabezirik ez bailitzateke egongo, edo oso gutxi, esku lana saltzen dutenek lana merkeago salduko balute. Eta hori da, azken finean, lan erreforma honek proposatzen duena: jarri baldintzak lan indarra merketu dadin eta lana sortuko da; enpresariak eskuak—eskubideekin— lotuta ez dituztenean kontratazioak egiten dituzte.

Eta logika horretan, Espainian ere akaso posible litzateke lanpos-



tuak sortzea, baldin eta ekonomia hazkunde fase batean balego. Argentina izan liteke horren adibide, duela hamar urtetik hona lanpostu asko sortu dira han—langabezi tasa %10etik beherakoa da orain—, baina Gara-n CTA sindikatuko Pablo Michelli idazkari nagusiak gogoratu berri duen moduan, oso kalitate urriko lanpostuekin.

Azken finean, ekonomi hazkunde eta lan eskubideen urritzea ondo moldatzen dira, Txinan, Indian, Errusian, Brasilen, Argentinan eta beste hainbat herrialdetan erakutsi den moduan. Horrants goaz eta ez da ziur atzerakada horretan Europa non geratuko den. Globalizazio neoliberalaren aroan, azken 30 urteetan, finantzen globalizazioarekin batera, neoliberalismoak lan merkatuak ere zorrotz globalizatu ditu, baina okerrera. Lan eskubideak kapitalaren gainetik ziren gotorleku hori zen Europa, baina erasoaldiari ezin eutsiz ari da.

ESPAINIAKO EKONOMIA, gainera, ez da hazkundean, atzeraldian baizik, eta testuinguru horretan lan erreforma honek lanpostuak sortzeko dituen aukerak urriak dira. Ekonomialari liberal partehartzaleen artean ere gero eta gaitzagoa

ikusten da politika hauekin krisialditik ateratzearena, neurri hauek kontsumoa uzkuertzen dutelako eta kontsumoa bultzatu gabe ez baita lortuko ekonomia haztea eta, beraz, lanpostuak sortzea. Keynesek zioen moduan, azkenean enpresariak zertarako kontratatuko ditu langileak merkeago gero ez badu produktuak nori saldu?

CCOO sindikatuko Primero de Mayo Fundazioaren ikerketa baten arabera, 1980an Langi-

leen Estatutua onartu zenetik 52 lan erreforma izan dira Espainian, guztiak lan merkatuen malgutasunaren bila. Denbora horretan, Espainia izan da gehienetan EBko langabezia tasa handiena izan duena.

Eta nola egin aurre egoerari? Ez da batere samurra, zalantza barik; azken finean honek guztiak badu zerikusirik finantzen munduan horren ospetsu egin diren AAA kalifikazioekin, baina Damien Millet eta Eric Toussaint ekonomialariek proposatzen duten beste irakurketa berri honekin: *“Notre AAA: audit, action, annulation”* (Gure AAA: ikuskaritza, ekintza eta baliogabetzea). Estatuak, enpresak eta familiek urteetan pilatutako zorrak badu zerikusirik krisialdiarekin, beraz, aztertu behar da zein zorren parte den zilegi eta zein ez; zilegi ez dena baliogabetu egin behar da, eta ondoren, herritarren mobilizazioak eta erantzunak beste politikak behartu behar dituzte.

Alternatibetan ere ez dago oinarritzko errezeta berririk. Greziak EBren neurriak onartu ez balitu, gaur hondamendian legoke, baina bihar nor izateko aukerarekin. Orain hondamendian sakontzen jarraituko du, seguruenik luzerako.



Tarteko helmugak, inoiz baino gehiago

Ez zait erraza azken hilabeteotako mugimendu politikoak, asko eta askotarikoak, eginak eta esanak, batzuenak eta besteenak, norabide argi batera biltzea. Kausala eta kasuala desberdintzea, unekoa eta perspektibakoa.

Izan ere, batzuen ibilbide-orria, ezker subiranistena, jakina da, traza nagusietan behintzat erreferente ezagunak ditu oinarri, Aietekoa eta Gernikakoa. Biak zein biak Euskal Herriak aurrean dituen erronka nagusi bien bati begira daude, gatazkaren konponbide integralari, funtsezkoa dena, eredu sozio-ekonomikoaren erronkari baldintza egokiagoetan heltzeko.

Beste eragile batzuen eremuetatik datoz dudak: nork bere eremuan, bide-orri estrategikorik ote duen, ezkutuan bada ere, edo egoera berria oztopatu nahi ote duen, denbora irabazi asmoz; oraingoak gero edo, badaezpada.

Edozelan ere, orokorrean, panorama politikoa argituz doa, birkokatzeak ematen ari dira, ekonomian bezala politikan ere auskalokoa baitute epe motzeko eszenatokia. Eta epe motza ibili beharra dago epe luzera bidean; perspektiban. Epeak epe, iraganeko argi-ilunak medio, nahiko finkatuta dago gaur bi errailen eredua, teknikoa eta politikoa, baita bakoitzaren eremua ere: nork zer; noiz eta nola dira kontuak. Estatua ezinbesteko eragilea da abiapuntuan bertan errail teknikoan, Aietekoa gogoan, presoak bere esku dituelako. Baina ez errail politikoaren tarte handi batean, gerora beharrezkoa bada ere. Hortaz, errailetan politikoa da funtsezkoena, eta honetan ematen diren atzerazinezko urratsek egin behar dute gero eta posibleago errail honetan alde-anitzera heltzea eta teknikoa abiatuta bere osotasunean bururaino eramatea.

Abian den errail politikoa oztopatzeko antsia sortzen ahaleginduko dira, Estatuaren itxikeriak eragindako ezintasun sentipena zabaltzen, aldebakarrean aritzeak bere horretan usteltzera eramango gaituelakoan. Noiz arte da ibilgarri aldebakarreko bidea? Tira, esan dezadan aurretik urtetan ibilitako bideak badakigu norantz generamatzan; hortaz, denbora eman behar zaio apustu-bide



DANI BLANCO

berriari, denbora urratsez betetzen, jakina. Helburuak ez dira lortzen egun batetik bestera, eragile sozialen bat abiadura handiko purutasunean kontrakoan tematu arren. Iragan hurbilak utzitako ikasgaia da prozesu politikoak trantsizio-prozesuak direla, hortxe ibilbide-orriaren beharra; marko juridiko-politikoan izan edo eredu sozio-ekonomikoan izan, ezkerreko subiranisten erronka nagusiak, aldaketek trantsizioa behar dute. Hortaz, tarteko helmugak inoiz baino beharrezkoagoak dira, pragmatismoz esanda; helbide hartuta eta ez helburu, jakina. Are

Noiz arte da ibilgarri aldebakarreko bidea? Tira, esan dezadan aurretik urtetan ibilitako bideak badakigu norantz generamatzan; hortaz, denbora eman behar zaio apustu-bide berriari, denbora urratsez betetzen, jakina. Helburuak ez dira lortzen egun batetik bestera, eragile sozialen bat abiadura handiko purutasunean kontrakoan tematu arren


gehiago, bide-orriaren traza nagusiak egunez egun hezurramitu behar direnean, ilusio sortzaile eta dinamika berrien pizgarri. Ezin da ahaztu pertzepzio soziala ezinbesteko zutabea dela trantsizio batean.

Hortaz, aldebakarrean ibili beharko, gero eta sendoago, adostasun zabal berrietarako hesiak gaindituz, alde-anitzeko fasea gero eta ekidin ezinago eginez. Horren bidean gelditzerik ez, eta ezker subiranistek hiru esparru uztartzen jarraitu behar dute, mobilizazioa, ideologikoa eta instituzionala, eta azken honetan ez oposiziotik bakarrik, boteretik ere, instituzio handi zein txiki, bestelako kudeaketa bidean, kontra-boterea bidaide, nork bere eremutik, bidean jarrera kontrajarriak uztartzeko ikasten. Asko dugu gure apustu-bidean ikasteko, seguruenik uste duguna baino gehiago. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxurra Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Arronategi auzoa, z/g
Bermeo, BIZKAIA

www.hotelatxurra.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2




Esait

6 kamiseta opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

3



Historia del Rock vasco edozein herriko jaixetan

Elena López Aguirre

5 liburu opari

www.baga-biga.com

4



Okatxu

2 kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2309. Argia)

ATXASPI hotela

- Lierni Arrieta Irureta (Oiartzun)

DONOSTIAKO AQUARIUMa

- Lierni Alberdi Balzategi (Bergara)
- Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)
- Jesus Lasa Arin (Donostia)
- Maite Arregi Tejeria (Villabona-amasa)

ILLIMANI

- Nekane Ariz Eskisabel (Usurbil)
- Jesus Mari Kerejeta Aldalur (Urretxu)

ESAIT 7ak bat kamiseta

- Patxi Xabier Erezkano Mardaraz (Bilbo)
- Jon Etxabe Jauregi (Elgoibar)
- Iñaki Gabilondo Millet (Leintz-gatzaga)
- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)
- Mikel Ayllon Corral (Laudio)
- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)

ETXE haize berri bat CDa

- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
- Ramon Iriondo Bergara (Hernani)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
- Karmelo Busturia Jimeno (Bergara)
- Juan Anjel Iturzaeta Martija (Zarautz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



euskal kulturaren

URTEKARIA



Euskal kulturaren urtekaria

2011-2012



- Euskal kultur arloko joeren aurrerapena
- Urteko hamar pertsona garrantzitsuenak
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin

ESKURA EZAZU
943 37 15 45
argia.com/denda
denda@argia.com

